

ARRUE IKERKETA:
EAEko IKASLEEN EUSKARAREN ERABILERA
ESKOLA-GIROAN, 2011-2017

TXOSTEN TEKNIKOA

2019ko apirila



Egileak:

- Iñaki Martinez de Luna Perez de Arriba (Soziolinguistika Klusterra)
- Pablo Suberbiola Unanue (Soziolinguistika Klusterra)

Analisi estatistikoetan lankide:

- Iñaki García Fernández (UPV-EHU)

Arrue Proiektuaren koordinazio eta gainbegiraketa:

- Lucía Torrealday (Eusko Jaurlaritza – Hezkuntza)
- Iñigo Barruso (Eusko Jaurlaritza – Hezkuntza)
- Ibon Olaziregi (Eusko Jaurlaritza – Hezkuntza)
- Xabier Aizpurua (Eusko Jaurlaritza – ISEI-IVEI)
- Eduardo Ubieta (Eusko Jaurlaritza – ISEI-IVEI)
- Josune Zabala (Eusko Jaurlaritza – Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
- Imanol Larrea (Soziolinguistika Klusterra)
- Olatz Bengoetxea (Soziolinguistika Klusterra)
- Iñaki Martinez de Luna (Soziolinguistika Klusterra)
- Pablo Suberbiola (Soziolinguistika Klusterra)

Aurkibidea

SARRERA	6
1.- ESKOLAKO EUSKARAREN ERABILEREN TESTUINGURATZEA	8
1.1.- TESTUINGURU SOZIALA	9
1.1.1.- Udalerriko eremu soziolinguistikoa.....	9
1.1.2.- Erabilera eskolaz kanpoko jardueretan	10
1.2.- FAMILIA TESTUINGURUA	13
1.2.1.- Lehen hizkuntza	13
1.2.2.- Erabilera familia-kideekin	14
1.2.3.- Erabilera etxean denak batera daudenean	15
1.2.4.- Familia-kideen jatorria	16
1.3.- ESKOLA TESTUINGURUA	17
1.3.1.- IRAKASTEREDUEN BILAKAERA.....	17
1.3.2.- IRAKASLEEN ARTEKO ERABILERA	19
1.3.3.- IKASLEEN HIZKUNTZA-KONPETENTZIAK (EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA).....	20
1.3.4.- IKASLEEN HIZKUNTZA-KONPETENTZIAK KONBINATUTA	22
2.- IKASLEEN EUSKARAREN ERABILERA ESKOLA GIROAN (2011-2017).....	24
2.1.- IKASKIDEEKIN GELAN	25
2.2.- IKASKIDEEKIN JOLASLEKUAN.....	26
2.3.- IRAKASLEEKIN GELAN.....	27
2.4.- IRAKASLEEKIN GELATIK KANPO	28
2.5.- ESKOLAKO ERABILERA OROKORRA	29
2.6.- IKASLEEN ESKOLAKO ETA ETXEKO ERABILEREN LUZETARAKO AZTERKETA (2011-2015 eta 2013-2017).....	30
2.6.1.- Eskolako erabilera orokorraren <i>luzetarako</i> azterketa	30
2.6.2.- Eskolako erabilera orokorraren <i>luzetarako</i> azterketa, aldagaien arabera.....	31
2.6.3.- Ikasleen etxeko erabileraren <i>luzetarako</i> azterketa	34
3.- ESKOLA-GIROKO ERABILEREN ALDERAKETAK	35
3.1.- IKASLEEN ESKOLAKO ERABILERAK ALDAGAI ASKEEN ARABERA	35
3.1.1.- Eremu soziolinguistikoaren arabera.....	36
3.1.2.- Sexuaren arabera	38
3.1.3.- Etxeko erabileraren arabera	39
3.1.4.- Ikasleen eta euren gurasoen jatorria	41
3.1.5.- Ikastetxeko ISEK indizearen arabera	42
3.1.6.- Ikastetxearen titularitatea	43
3.2.- IKASLE GUZTIAK ETA IRAKASTEREDU BAKOITZEKOAK (A, B, D).....	45
3.2.1.- Eskolako erabileraren bilakaera D ereduan (2011-2017)	47

4.- ONDORIOAK ETA HAUSNARKETAK.....	49
4.1.- Ikerketaren emaitza eta ondorio nagusiak.....	49
4.1.1.- Ikasleen hizkuntza-erabilerak baldintza ditzaketen ezaugarriak	49
4.1.2.- Ikasleen eskolako hizkuntza-erabilerak 2011-2017.....	50
4.1.3.- Eskolako hizkuntza-erabilerak aldagaien arabera alderatuta.....	54
4.2.- Emaizten irakurketa soziolinguistikoa	54
4.3.- Hausnarketak eta aurrera begirako galderak	56
5.- XEHETASUN METODOLOGIKOAK.....	57
5.1.- EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA: HAINBAT XEHETASUN	57
5.2.- IKERKETA-UNIBERTSOA.....	57
5.2.1.- Aldagai aske batzuk lagin adierazgarri bidez	60
5.3.- 2011, 2013, 2015 ETA 2017KO DATU BASE BATERATUAN DAUDEN ALDAGAIK ETA ITURRIA.....	60
5.4.- ERABILERA-TASA ESLEITUAK	64
5.5.- SORTUTAKO ALDAGAI TRINKOAK ETA BEREN SORRERA	65
6.- BIBLIOGRAFIA	67

7.- ERANSKINAK68

7.1.- GALDETEGIAK (EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA 2017, euskaraz).....	68
7.2.- ARRUE 2011-2017 TAULA OSAGARRIAK.....	80
7.2.1.- EMAITZA OROKORRAK.....	80
7.2.2.- Erabilera familian.....	83
7.2.3.- Erabilera eskolan.....	86
7.2.4.- Eskolako erabilerak Eremu soziolinguistikoaren arabera.....	89
7.2.5.- Eskolako erabilerak lehen hizkuntzaren arabera.....	92
7.2.6.- Eskolako erabilerak irakastereduaren arabera.....	94
7.2.7.- Eskolako erabilerak ikastetxearen titularitatearen arabera.....	96
7.2.8.- Eskolako erabilerak ikastetxearen ISEK mailaren arabera.....	98
7.2.9.- Eskolako erabilerak ikaslearen ISEK mailaren arabera.....	100
7.2.10.- Eskolako erabilerak etxeko erabileraren arabera.....	102
7.2.11.- Eskolako erabilerak ikasleen sexuaren arabera.....	104
7.2.12.- Eskolako erabilerak jatorriaren arabera.....	106
7.2.13.- Eskolako erabilera orokorra eta aldagai askeak (Korrelazioak).....	108
7.2.14.- Eskolako erabilera orokorra eta aldagai askeak (erregresioa).....	111
7.2.15.- EMAITZA OROKORRAK (D IRAKASTEREDUA).....	114
7.2.16.- Erabilerak familian (D IRAKASTEREDUA).....	118
7.2.17.- Erabilerak eskolan (D IRAKASTEREDUA).....	121
7.2.18.- Eskolako erabilerak eremu soziolinguistikoaren arabera (D IRAKASTEREDUA).....	125
7.2.19.- Eskolako erabilerak lehen hizkuntzaren arabera (D IRAKASTEREDUA).....	128
7.2.20.- Eskolako erabilerak ikastetxearen titularitatearen arabera (D IRAKASTEREDUA).....	130
7.2.21.- Eskolako erabilerak ikastetxearen ISEK mailaren arabera (D IRAKASTEREDUA).....	132
7.2.22.- Eskolako erabilerak ikaslearen ISEK mailaren arabera (D IRAKASTEREDUA).....	134
7.2.23.- Eskolako erabilerak etxeko erabileraren arabera (D IRAKASTEREDUA).....	136
7.2.24.- Eskolako erabilerak ikasleen sexuaren arabera (D IRAKASTEREDUA).....	138
7.2.25.- Eskolako erabilerak jatorriaren arabera (D IRAKASTEREDUA).....	140
7.2.26.- Hizkuntza konpetentzia (D IRAKASTEREDUA).....	143
7.2.27.- Hizkuntza erabilerak eskolaz kanpoko jarduerak (D IRAKASTEREDUA).....	145
7.2.28.- Irakastereduen bilakaera (Luzetarako alderaketa).....	147
7.2.29.- Erabilerak eskolan (Luzetarako alderaketa).....	147
7.2.30.- Erabilera orokorra aldagai batzuen arabera (Luzetarako alderaketa).....	151
7.2.31.- Hizkuntza erabilera familian (Luzetarako alderaketa) (D irakasteredua).....	152
7.2.32.- Erabilerak eskolan (Luzetarako alderaketa) (D irakasteredua).....	153
7.2.33.- Erabilera orokorra aldagai batzuen arabera (Luzetarako alderaketa) (D irakasteredua).....	157

SARRERA

2017. urteko Ebaluazio Diagnostikoa probaren bitartez (ISEI-IVEI), laugarren aldiz jaso ahal izan dira Arrue Ikerketarako EAEko LH4 eta DBH2 ikasmailetakoko ikasleen eskolako hizkuntza-erabilerei buruzko datuak (2011, 2013 eta 2015ean izan ziren aurreko hirurak). Lan honek, horrela, jarraipena ematen die 2011z geroztik egin ditugun azterketei, arreta nagusia 2011-2017 sei urteko bilakaera orokorrean jarritz. Nolanahi ere, 2017an jasotako hainbat datuk *aldaketa* bat edo *eten* moduko bat suposatu dute ordura arte (2011-2015) ikasleen eskolako euskarazko erabileretan marrazten hasitako joeretan, eta beraz halakoei ere erreparatu diegu lan honetan.

EAE mailan 2017an eginiko laugarren azterketa honekin, bestalde, bigarren aldiz egin ahal izan da ikasleen eskola-giroko euskarazko erabileren *luzetarako* azterketa (edo azterketa *longitudinala*); izan ere, 2013an LH4 ikasmilian ari ziren ikasleak dira, neurri handi batean, 2017an DBH2n neurtu direnak. 2015ean izan genuen lehen aldiz halako azterketa egiteko aukera, gauza bera gertatu baitzen orduan 2011-2015 datuen alderaketarekin.

Aztertu diren ikasleen eskolako hizkuntza-erabilerei dagokionez, jarraipena eman zaio aurreko azterketetan finkaturiko eskemari: ikasleen eskolako lau erabilerari buruzko informazioa jaso da (*ikaskideekin gelan*, *ikaskideekin jolaslekuan*, *irakasleekin gelan* eta *irakasleekin gelatik kanpo*). Lau horien datuak konbinatuz, *eskolako erabilera orokorraren* datuak ere kalkulatu dira.

Eskolako euskarazko erabilera horiek erraztu edo zaildu ditzaketen aldagaiei dagokionean, 2017an aurreko urteetan baino informazio mugatuagoa jaso da, eta ondorioz, zenbait analisi kendu egin dira oraingo lanean (nagusiki *korrelazioen analisisa* eta *erregresio anizkoitz bidezkoa*). Aldiz, aurreko lanetan eskainitako beste atal batzuk, eskema bertsua jarraituz osatu dira hemen: ikasleen euskarazko erabilerak (alde edo kontra) baldintza ditzaketen aldagai batzuen deskribapena, eskolako erabileren bilakaera, bilakaera horiek aldagai askeen arabera, etab.

Bestalde, 2011-2017 datuen analisisen artean ildo berri osagarri bat ere zabaldu dugu. Ikusirik (ustez) ezaugarri soziolinguistikoki antzekoak izanik ere, ikastetxe batzuetatik besteetara ikasleen eskolako hizkuntza-erabilerak kasu batzuetan nabarmen aldatzen direla, ikastetxea unitate gisa hartzen duen azterketa arakatzailerak landu da. Lan horren emaitza berariaz osaturiko txosten batean jaso da,

izenburu honekin: *Arrue Ikerketa. Ikasleen hizkuntza-erabileren bilakaera orokorrak ikastetxeetan (2011-2017): azterketa arakatzailerak.*

Datuen aurkezpen eta azalpenari dagokionez, ideia nagusiak modu bisualago edo laburtuagoan emateko saiakera egin da lan honetan. Hala ere, 2011-2015 lanean egin bezala, eranskinetan taula bidez informazio ugari eskaintzen ere saiatu gara, xehetasun bila edo bere intereseko gaiak zehatzago aztertzerako jo nahi lukeenak horretarako aukera ahalik eta zabalena izan dezan.

Ikerketaren eta txosten tekniko honen xedeei dagokionez, bestalde, orain arte Arrue Ikerketan lantzen ari garen ildoan kokatzen dira: batetik EAEko ikasleen eskola-giroko hizkuntza-erabileren azterketa egitea, arreta nagusia euskararen erabileretan jarritz. Eta bestetik, euskarazko erabilera horien zenbatekoak, igoerak, jaitsierak eta bestelakoak nolatan gertatzen diren ezagutzeko eta ulertzen saiatzeko oinarri enpiriko sendoa eta ahalik eta analisirik egokienak eskaintzea. Informazio guzti honek, noski, baliagarri izan nahi luke euskal hezkuntza sisteman ikasleentzat helburu gisa finkatzen diren hizkuntza-konpetentzia eta hizkuntza-erabileretara iritsi ahal izateko bere ahalegina egiten duten guzti horientzat, hala nola gai hauetan beren interes zientifikoa duten ikerlariarentzat.

Lan hau, bestalde, teknikoki gehienbat Soziolinguistika Klusterrean egin dugu, baina, aurrekoetan bezala, erakundeen arteko lankidetzan aritu gara berau osatu ahal izateko. Batetik ISEI-IVEIko lankideekin, bestetik Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaekin, eta, nola ez, Hezkuntza Saileko Euskara Zerbitzuko kideekin. Guztiok espero dugu lan honetan jasotakoak zuretzat interesgarri eta baliagarri izango direla.

Gasteizen, 2019ko apirilean

Maite Alonso Arana

Hezkuntza sailburordea. Eusko Jaurlaritza


1.- ESKOLAKO EUSKARAREN ERABILEREN TESTUINGURATZEA

Arrue Ikerketan aztergai dugun ikasleen eskolako euskararen erabilera baldintza dezaketen egoerak edota ezaugarriak hiru esparrutan banatu ohi ditugu, eta kasu honetan ere hala antolatuta eskaintzen dira datuak: ikasleak bizi diren *testuinguru sozialean* hizkuntzei dagokionean duten errealitatea, haien *familia testuinguruak* hizkuntzen aldetik dituen ezaugarriak eta, azkenik, *eskola testuinguruak* berak nolako baldintzak eskaintzen dituen hizkuntza baten edo beste baten erabilerarako.

1.1.- TESTUINGURU SOZIALA

1.1.1.- Udalerriko eremu soziolinguistikoa

1. GRAFIKOA: IKASLEEN PROPORTZIOAK, EUREN IKASTETXEA DAGOEN UDALERRIKO EUSKALDUN-DENTSITATEAREN ARABERA. LH4 ETA DBH2 MAILETAKO IKASLEAK, EAE, 2011-17 (%)



1. TAULA: IKASLEAK (%), EUREN IKASTETXEA DAGOEN UDALERRIKO EUSKALDUN-DENTSITATEAREN ARABERA. LH4 ETA DBH2 MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2011-17

Eremu soziolinguistikoa (lau eremutan)								
	LH4				DBH2			
	2011	2013	2015	2017	2011	2013	2015	2017
%80,01-%100,0	2,7	4,2	4,1	3,9	1,4	3,1	2,8	2,8
%50,01-%80,0	24,3	23,0	23,5	24,6	24,9	23,1	23,5	23,5
%20,01-%50,0	63,0	62,5	62,1	61,5	64,5	64,4	64,2	64,0
%0-%20,0	9,9	10,2	10,3	10,0	9,1	9,3	9,5	9,8
Guztira	99,9	99,9	100,0	100,0	99,9	99,9	100,0	100,1
Oinarria (n)	18.636	19.114	20.987	21.338	17.184	17.121	19.095	21.329

Ikasleriaren gizarte ingurunea islatzeko baliatu ditugun aldagaiak bi dira: ikastetxea kokatuta dagoen udalerriko euskaldunen proportzioa (ez ikasleak bizi diren herrietakoa) edo *eremu soziolinguistikoa* eta *eskolaz kanpoko jardueren hizkuntza*.


Eremu soziolinguistikoaren arabera, kategoria bakoitzean biltzen diren ikasleen proportzioak oso berdintsu mantendu dira 2011-2017 artean, bai LH4n eta bai DBH2n.

Bi ikasmailetako ikasleen ia bi herenek ikasten dute euskaldunen proportzioa %20tik %50era bitartean duten udalerrietan, eta beste laurden batek euskaldunen proportzioa %50-%80 bitarteko udalerrietan.

Euskaldunak %20tik behera diren herrietan ikasten duten ikasleak %10 inguru dira bi ikasmailetan eta, beste muturrean, euskaldunak %80tik gora diren herrietako ikasleak %4 inguru besterik ez dira LH4n, eta %3 inguru DBH2n.

1.1.2.- Erabilera eskolaz kanpoko jardueretan

2. GRAFIKOA: ZENBAT ORDU ASTEAN EUSKARAZ, GAZTELANIAZ, INGELESEZ ESKOLOZ KANPOKO JARDUERETAN. LH4. MAILAKO ETA DBH2. MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2017 (%)



2017ko Arrue datu jasoketaren baitan, ez da aukerarik izan ikasleek eskolaz kanpoko jardueretan egiten duten hizkuntza-erabileraren informazioa aurreko urteetako modu berean jasotzeko; aldiz, ikasleei astero euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez halako jardueretan zenbat ordu ematen duten galdetu zaie.

Datuak nahiko ezberdinak dira bi ikasmailetan, batez ere euskaraz eta gaztelaniaz (ez hainbeste ingelesez). LH4n, euskaraz jardueraren bat egiten duela aitortzen du ikasleen %55,8ak. Aldiz, DBH2n proportzio hori ia 20 puntu baxuagoa da (%36,9).


Alde nabarmena dago gaztelaniazko jardueretan ere: LH4n ikasleen %61,5k ematen ditu hizkuntza horretako jardueratan astero ordu batzuk, eta aldiz DBH2n %42,4 baino ez dira.

LH4n, ikasleek ingelesez egiten dute jarduerarik gutxien (%11,8 egiten du jardueraren bat), baina DBH2n hizkuntza horretakoak dira daturik altuenak, alde handiz: ikasleen %34,5k aitortzen du astero hainbat ordu ematen dituela ingelesezko jardueretan eskolatik kanpo. Aldiz, DBH2n euskaraz eta gaztelaniaz datu hori nabarmen baxuagoa da: euskaraz 20 bat puntu baxuagoa (%15,3), eta gaztelaniaz 15 bat puntu (%26,1).

2. TAULA: ESKOLOZ KANPOKO JARDUERETAKO HIZKUNTZAK. LH4 ETA DBH2 MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2017 (%)

	[Euskaraz/Gaztelaniaz/Ingelesez] zenbat ordu ematen duzu astero eskolaz kanpoko jarduerak egiten?					
	LH4			DBH2		
	Euskara	Gaztelania	Ingelesa	Euskara	Gaztelania	Ingelesa
Ez dut egiten	44,2	38,5	48,6	63,1	57,6	42,0
Bi ordu baino gutxiago astean	28,7	23,5	36,8	18,8	15,4	21,3
Bi eta lau ordu artean	11,8	12,0	12,5	9,8	11,2	34,5
Lau ordu baino gehiago	15,3	26,1	2,2	8,3	15,8	2,1
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Oinarria (n)	6.416	6.416	6.416	6.396	6.396	6.396

3. GRAFIKOA: ESKOLAZ KANPOKO INGELESEZKO JARDUEREN BILAKAERA. LH4 ETA DBH2 MAILETAKO IKASLEAK, EAE, 2015-2017 (%)





Ikasleek astero eskolaz kanpoko jardueretan ingelesez zenbat ordu ematen dituzten datua 2015ean ere jaso zen, eta bi urteetako datuen bilakaera erakusten da hemen. Datuak oso deigarriak dira.

2015etik 2017ra hazkunde nabarmena izan dute ikasleek eskolaz kanpo astero ingelesez egiten dituzten jarduerak, batez ere LH4n: hizkuntza horretan jardueraren bat egiten dutela aitortzen duten ikasleen proportzioak 11 puntu egin du gora bi urtetan: ikasleen %40 izatetik %51,4 izatera pasa da. DBH2n ere datuek hazkunde handia erakusten dute, kasu honetan 8 puntu pasatxokoa (%49,9tik %58ra), eta hala, ikasmaila honetan 2017an gehiengoa osatzen dute halako jardueraren bat egiten duten ikasleek.

3. TAULA: ESKOLAZ KANPOKO JARDUERAK INGELESEZ. LH4 ETA DBH2 MAILETAKO IKASLEAK, EAE, 2015-2017 (%)

	Ingelesez, zenbat ordu ematen duzu astero eskolaz kanpoko jarduerak egiten?			
	LH4		DBH2	
	2015	2017	2015	2017
Ez dut ingelesezko eskolaz kanpoko ekintzarik egiten	60,0	48,6	50,1	42,0
Bi ordu baino gutxiago	28,2	36,8	15,1	21,3
Bi eta lau ordu artean	10,5	12,5	33,2	34,5
Lau ordu baino gehiago	1,3	2,2	1,5	2,1
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0
Oinarria (n)	19.773	6.416	18.045	6.396

4. eta 5. GRAFIKOAK: ESKOLAZ KANPOKO JARDUERAK ETA HIZKUNTZAK. EUSKARAZ/GAZTELANIAZ ALDAGAI KONBINATUA. LH4 ETA DBH2 MAILETAKO IKASLEAK, EAE, 2017 (%)



4. TAULA: ESKOLAZ KANPOKO JARDUERAK ETA HIZKUNTZAK, EUSKARAZ/GAZTELANIAZ, ALDAGAI KONBINATUA. LH4 ETA DBH2 MAILETAKO IKASLEAK, EAE, 2017 (%)

	[Gaztelaniaz/euskaraz], zenbat ordu ematen duzu astero eskolaz kanpoko jarduerak egiten?			
	LH4		DBH2	
	Guztira (%)	Jardueraren bat egiten dutenen %a	Guztira (%)	Jardueraren bat egiten dutenen %a
Erabat euskaraz	12,0	16,3	11,1	20,8
Nagusiki euskaraz	10,1	13,7	4,7	8,7
Berdin bi hizkuntzetan	17,4	23,7	12,8	23,9
Nagusiki gaztelaniaz	16,3	22,2	8,3	15,5
Erabat gaztelaniaz	17,7	24,0	16,7	31,2
Ez du egiten	26,5	---	46,5	---
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0
Oinarria (n)	6.416	4.716	6.396	3.425


Ikasleek astero euskarazko eta gaztelaniazko eskolaz kanpoko jardueretan aitortzen dituzten hizkuntza-erabileren datuak modu konbinatuan eskaintzen dira hemen (bi hizkuntzetakoren batean –edo bietan- jardueraren bat egiten duten ikasleak hartu dira kontuan). Kategoriak sortzeko datuak nola konbinatu diren, ikus eranskinetako 7.2.27 atalean, 162. taula.

Kategorien arteko datuetan alde txiki batzuk badiren arren, proportzio nagusiak antzerakoak dira bi ikasmailetan: gehienbat euskaraz (“erabat”+“nagusiki”) aritzen diren ikasleak %30,0 dira LH4n eta DBH2n %29,5. Bi kasuetan, proportzio handiagoa osatzen dute gehienbat gaztelaniaz aritzen diren ikasleek: hurrenez hurren, %46,2 eta %46,7.

1.2.- FAMILIA TESTUINGURUA

1.2.1.- Lehen hizkuntza

6. GRAFIKOA: LEHEN HIZKUNTZA. LH4 ETA DBH2 MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2011-2017 (%)



5. TAULA: LEHEN HIZKUNTZA. LH4 ETA DBH2. MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2011- 2017 (%)

	Hiru urte bete arte, zein izan zen etxean erabili zenuen hizkuntza?							
	LH4				DBH2			
	2011	2013	2015	2017	2011	2013	2015	2017
Euskara	19,8	-	21,4	21,7	20,4	-	20,2	20,2
Bai euskara bai gaztelania	13,7	-	15,7	17,1	15,0	-	14,5	16,5
Gaztelania	62,0	-	57,4	55,0	60,2	-	60,1	58,4
Beste hizkuntza bat	4,5	-	5,5	6,3	4,4	-	5,2	4,9
Guztira	100,0	-	100,0	100,0	100,0	-	100,0	100,0
Oinarria (n)	18.206	-	19.740	19.221	16.758	-	18.020	19.079

2011-2015eko Arrue analisian aldaketa soziolinguistiko garrantzitsu baten lehen zantzu gisa aipatutakoa baieztatu egiten da 2017ko datuetan: lehen hizkuntza gisa etxean euskararik –soilik edo gaztelaniarekin batera– jaso ez dutenen proportzioa, beherantz doa LH4n. Zehazki, 2011tik 2017ra, proportzio horrek 5,2 puntu egin du behera.


Horri gehitu behar zaio, 2017an DBH2ko ikasleen datuetan hasi dela sumatzen aldaketa hori, modu askoz apalagoan bada ere: 2011tik 2015era maila berdinean egon ondoren, azken neurketan (2015etik 2017ra) 1,3 puntu apaldu da etxean euskararik jaso ez duten ikasleen proportzioa (%64,6tik %63,3ra).

Azpimarratzekoa da, bestalde bi ikasmailetan ikasleen lehen hizkuntzan euskararen aldera izandako gorakada horrek etxean “bai euskara eta bai gaztelania” jaso duten ikasleen proportzioa handitu duela batez ere, ez hainbeste “euskara” soilik jaso dutenena.

LH4n, euskara gaztelaniarekin batera jaso dutenek 3,4 puntu egin dute gora 2011tik 2017ra, eta 1,9 puntu soilik euskara jaso dutenek. DBH2ko ikasleen artean, berriz, aipatutako 1,3 puntuko euskarazko gorakada hori erabat zor zaio “bai euskara eta bai gaztelania” motako ikasleen gehikuntzari: 1,5 puntu igo da talde horretako ikasleen proportzioa, eta 0,2 puntu apaldu, aldiz, etxean “euskara” soilik jaso dutenena.

1.2.2.- Erabilera familia-kideekin

7. GRAFIKOA: IKASLEEK AMAREKIN ETA NEBA-ARREBEKIN EGITEN DUTEN EUSKARAZKO ERABILERA (TASA ESLEITUA). LH4 ETA DBH2 MAILETAKO IKASLEAK, EAE, 2017 (%)



2017an aberastu egin da ikasleek etxekekin dituzten hizkuntza-erabilerak neurtzeko modua, xehetasun gehiago jasoz. Aldaketa hori tarteko, baina, ezin azken datuak aurreko urteetan jasotakoekin alderatu. Ikasleek “amarekin” eta “neba-arrebeekin” dizuten erabilerak hautatu dira hemen erakusteko (ikus gainerako erabilerak eranskinetako 7.2.2 atalean).


Amarekin zein neba-arrebeekin nabarmen altuagoa da LH4ko ikasleen euskarazko erabilera DBH2koena baino: 10,5 puntu amarekiko kasuan (%34,4 vs %23,9) eta 9 neba-arrebekikoan (%37,7 vs %28,7). Horrez gain, bi ikasmailetan, 3-4 puntu altuagoa da erabilera neba-arrebeekin amarekin baino.

6. TAULA: IKASLEEK AMAREKIN ETA NEBA-ARREBEKIN ERABILITAKO HIZKUNTZA. LH4 ETA DBH2 MAILETAKO IKASLEAK, EAE, 2017

	Amarekin		Neba-arrebeekin	
	LH4	DBH2	LH4	DBH2
	2017	2017	2017	2017
Beti euskaraz	19,1	13,5	20,6	15,0
Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago	7,9	5,5	8,8	5,4
Bietan berdin	10,2	5,3	12,5	9,1
Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago	17,0	14,5	17,0	20,3
Beti gaztelaniaz	40,0	57,2	37,7	47,8
Beste hizkuntzan batean	5,8	4,0	3,4	2,3
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0
Oinarria (n)	19.139	18.984	17.007	16.685
Erabilera-tasa esleitua (%)	34,4	23,9	37,7	28,7

1.2.3.- Erabilera etxean denak batera daudenean

8. GRAFIKOA: EUSKARAZKO ERABILERA ETXEAN DENAK BATERA DAUDENEAN (TASA ESLEITUA). LH4 ETA DBH2 MAILETAKO IKASLEAK, EAE, 2011-2017 (%)



7. TAULA: ETXEKO ERABILERA DENAK BATERA DAUDENEAN. LH4 ETA DBH2 MAILETAKO IKASLEAK, EAE, 2011-17

	Etxeok, denek, batera zaudetenean (jatorduetan, telebistan...) zein hizkuntzatan hitz egiten duzue?							
	LH4				DBH2			
	2011	2013	2015	2017	2011	2013	2015	2017
Beti euskaraz	11,0	12,5	13,8	17,0	8,8	9,5	9,7	11,8
Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago	7,8	8,6	8,3	6,0	7,9	7,5	7,6	5,0
Bietan berdin	8,2	8,5	8,0	9,0	5,5	4,6	4,9	5,9
Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago	15,6	18,4	16,5	11,8	17,3	17,5	16,1	10,0
Beti gaztelaniaz	54,1	48,0	48,5	50,7	57,4	57,3	58,0	63,5
Beste hizkuntzan batean	3,2	3,9	4,8	5,4	3,2	3,6	3,8	3,8
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Oinarria (n)	18.403	19.001	19.773	19.057	16.874	17.072	18.045	19.059
Erabilera-tasa esleitua (%)	24,9	27,8	28,2	29,0	21,7	21,8	21,8	21,0

Etxean neurtutako hizkuntza-erabileren artean, hau da 2011-2017 bilakaera osoa aztertzeko aukera ematen digun bakarra: etxeok guztiek batera daudenean egiten dutena.

Erabilera-tasa esleituen datuekin osaturiko grafikoan erraz suma daiteke bi ikasmailetan urte hauetan gertatu den bilakaera ezberdina: LH4ko ikasleen artean goranzko joera argia erakusten dute datuek, baina DBH2koak maila berdintsuan mantentzen dira. Zehazki, eta hurrenez hurren, 4,1 puntu egin du gora lehenengoaren erabilerak, eta aldiz 0,7 puntu behera ikasle helduenenak.

Taulan ikusten denez, aipagarria da ere 2017ko datuek 2015ekoekiko erakusten duten aldaketa bat, bi ikasmailetan eman dena eta “muturretarako joera” bezala laburtuko genukeen. Azken urteko datuetan, igo egin dira taulan erakusten den eskalako bi “muturretan” kokaturiko erabileren proportzioak (“beti euskaraz” eta “beti gaztelaniaz”), eta aldiz behera egin dute “euskaraz gehiago” edo “gaztelaniaz gehiago” kategorietako datuek. Eskalaren bi muturretan gertatu da aldaketa hori, bi ikasmailetan, eta aldaketak 2 eta 5 puntu artekoak izan dira.

1.2.4.- Familia-kideen jatorria

8. TAULA: IKASLEAREN ETA BERE GURASOEN JAIOLEKUAREN ARABERAKO SAILKAPENA (JATORRIA). LH4 ETA DBH2 MAILETAKO IKASLEAK, EAE, 2011-17

	Ikaslearen eta bere familiaren jatorria							
	LH4				DBH2			
	2011	2013	2015	2017	2011	2013	2015	2017
Bi gurasoak eta ikaslea bertan jaioak	64,9	64,4	60,4	60,5	60,0	60,6	58,9	58,7
Gurasoetako bat kanpoan jaioa; ikaslea bertan jaioa	17,4	16,0	14,6	14,2	20,1	19,9	17,8	15,7
Gurasoak kanpoan jaioak; ikaslea bertan jaioa	4,8	5,7	6,2	6,3	5,9	5,2	4,6	4,0
Guraso bat edo biak bertan jaioa(k); ikaslea kanpoan jaioa	3,4	3,7	3,5	2,9	2,9	3,5	3,5	3,3
Gurasoak eta ikaslea kanpoan jaioak	7,6	6,7	6,6	5,6	8,9	9,2	8,3	6,7
Beste egoerak eta informazio hutsuneak	1,8	3,5	8,6	10,6	2,3	1,6	6,8	11,6
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Oinarria (n)	18.636	19.114	21.167	21.338	17.184	17.121	19.095	21.436

Alboko taulak ikaslea eta bere gurasoak non jaioak diren oinarri hartuz eta erantzunak konbinatuz sorturiko sailkapena da, jaiolekua edo *jatorria* nolabait laburtzen diguna.

Kategoria nagusia bi ikasleetan “bi gurasoak eta ikaslea bertan jaioak” taldeko ikasleek osatzen dute, eta bi mailetan behera egin du haien proportzioak 2011-2017 tartean: 4,4 puntu LH4n eta 1,3 DBH2n.


Eskalaren beste aldean, behera egin dute halaber “gurasoak eta ikaslea kanpoan jaioak” taldekoek: 2 puntu lehen hezkuntzan eta 2,2 bigarreanean.

Nolanahi ere, azken bi neurketetan (2015 eta 2017) nabarmen egin du gora aurreko tipoetan sartzen ez diren edo informazio hutsunea duten ikasleen kasuek (ikus “beste egoerak eta jatorriaren inguruko informazio hutsuneak” kategoriko datuak taulan), eta beraz hutsune horiek ezagutu beharko lirateke hobeto, beste kategorietan izandako bilakaerak xehetasunez aztertzea sartu aurretik.

1.3.- ESKOLA TESTUINGURUA

1.3.1.- IRAKASTEREDUEN BILAKAERA

9. GRAFIKOA: IKASLEEN IRAKASTEREDUAREN BILAKAERA. LH4 ETA DBH2 MAILETAKO IKASLEAK, EAE, 2011-17 (%)



9. TAULA: IKASLEEN IRAKASTEREDUA. LH4 ETA DBH2 MAILETAKO IKASLEAK, EAE, 2011-17 (%)

	Irakasteredua							
	LH4				DBH2			
	2011	2013	2015	2017	2011	2013	2015	2017
A eredia	7,4	5,9	5,2	4,5	13,2	11,1	9,0	8,0
B eredia	28,5	26,6	24,3	22,0	27,9	27,8	26,5	25,4
D eredia	64,0	67,4	70,5	73,5	58,8	61,0	64,4	66,6
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Oinarria (n)	18.636	19.114	21.167	21.338	17.184	17.121	19.095	21.436

2011 eta 2017 urteen artean, gero eta handiagoa da bi ikasmailetan D irakastereduan ikasten duten ikasleen proportzioa; eta aldiz, beste bi irakastereduetako kopuruak (A eta B) txikitzen ari dira. Hala, 2017an, ia lau ikasletik hiru LH4n D ereduan ikasten ari da (%73,5) eta DBH2n, hiru ikasletik bi dira (%66,6).

Bilakaera horren erritmoari dagokionez, ikasmaila batean zein bestean, D irakastereduko ikasleen proportzioa 2 eta 4 puntu artean ari da hazten bi urtero. A eta B irakastereduetako ikasleei dagokionez, LH4n B irakastereduko ikasleen proportzioa azkarrago ari da txikitzen (sei urtean 6,5 puntu egin du behera, eta DBH2koak aldiz 2,5 soilik). Helduagoen artean, berriz, A irakastereduko proportzioak nabarmenago egin du behera (5,2 puntu sei urtean, eta LH4n 2,9).

Ikasle guztiei dagozkien kopuru orokor horiek, dena den, banaketa oso ezberdina dute ikastetxeen sare *publikoan* eta *itunpekoan*, hurrengo orriko taulak erakusten duen moduan. Sare publikoan, bi ikasmailetan D irakastereduko ikasleen proportzioa %90etik hurbil dago gaur egun (2017an, LH4n %90,7 eta DBH2n %87,9), eta itunpeko sarean, aldiz, proportzio horiek %50aren inguruan kokatzen dira (2017an, LH4n %54,8, eta DBH2n %47,7).

10. TAULA: IKASLEEN IRAKASTEREDUA, IKASTETXEEN TITULARITATEAREN ARABERA. LH4. MAILAKO ETA DBH2. MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2011-17


Titularitatea		Irakasteredua							
		LH4				DBH2			
		2011	2013	2015	2017	2011	2013	2015	2017
Publikoa	A eredua	4,5	2,5	2,6	2,0	10,1	7,5	5,7	5,0
	B eredua	13,3	11,2	9,1	7,3	10,6	10,0	8,6	7,1
	D eredua	82,2	86,3	88,3	90,7	79,3	82,5	85,6	87,9
	Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Oinarria (n) publikoa		9.502	9.611	10.836	11.121	7.934	7.912	8.958	10.081
Itunpekoa	A eredua	10,5	9,4	7,9	7,1	15,9	14,2	12,0	10,7
	B eredua	44,3	42,3	40,4	38,1	42,8	43,2	42,3	41,6
	D eredua	45,2	48,4	51,8	54,8	41,3	42,6	45,7	47,7
	Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Oinarria (n) itunpekoa		9.134	9.503	10.331	10.217	9.250	9.209	10.137	11.355
Oinarria (n)		18.636	19.114	21.167	21.338	17.184	17.121	19.095	21.436

B eta A irakastereduetako ikasleen proportzioek, beraz, pisu askoz handiagoa dute gaur egun itunpeko sarean publikoan baino (lehenengoan ere beheranzko joeran doazen arren). 2017an, LH4n itunpeko sareko ikasleen %38,1 B irakastereduan ari da ikasten (sare publikoan, berriz, %7,3), eta DBH2n kopuru hori %41,6koa da (sare publikoan, %7,1koa). A irakastereduan, azkenik, proportzioak hiru ereduetako baxuenak dira bi sareetan, baina kasu honetan ere, altuagoak itunpeko sarean, publikoan baino (itunpekoan, LH4n %5,0 eta DBH2n %10,7, eta publikoan, hurrenez hurren, %2,0 eta %7,1).

Gorago ikasle guztientzat deskribatutako irakastereduen bilakaera norabide orokor berean ari da gertatzen sare *publikoan* eta *itunpekoan*: hau da, bi sareetan ari dira hazten D irakastereduko ikasleen proportzioak eta beste bi ereduetakoak txikitzen. Sare bakoitzaren proportzioak eta erritmoak, dena den, nahiko ezberdinak dira.

1.3.2.- IRAKASLEEN ARTEKO ERABILERA

10. GRAFIKOA: IRAKASLEEK EUREN ARTEAN ERABILTZEN DUTEN HIZKUNTZA (IKASLEEN HAUTEMATEAREN ARABERA). LH4 ETA DBH2 MAILETAKO IKASLEAK, EAE, 2011-17 (%)



11. TAULA: IRAKASLEEK EUREN ARTEAN ERABILTZEN DUTEN HIZKUNTZA (IKASLEEN HAUTEMATEAREN ARABERA). LH4 ETA DBH2 MAILETAKO IKASLEAK, EAE, 2011-17(%)

	Adieraz ezazu normalean zein hizkuntzatan... C.hitz egiten duten zure irakasleak beraien artean.							
	LH4				DBH2			
	2011	2013	2015	2017	2011	2013	2015	2017
Beti euskaraz	52,1	51,2	53,5	53,8	33,7	38,1	40,1	39,9
Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago	18,6	17,6	17,0	15,4	26,1	26,0	26,3	26,0
Bietan berdin	12,9	12,4	10,4	11,6	18,7	15,7	15,3	15,7
Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago	7,3	8,2	8,2	7,8	10,0	9,3	9,2	8,6
Beti gaztelaniaz	8,7	9,9	10,3	10,6	10,9	10,2	8,6	9,3
Beste hizkuntzan batean	0,4	0,7	0,6	0,9	0,6	0,6	0,5	0,5
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Oinarria (n)	18.338	19.075	19.764	19.347	16.824	17.102	18.043	19.180
Erabilera-tasa esleitu (%)	74,3	72,7	73,5	73,1	65,1	67,9	69,8	69,4


Irakasleek hauteman eta aitortutakoaren arabera, irakasleen arteko euskarazko erabilerak bilakaera ezberdina izan du 2011tik 2017ra artean, bi ikasmailetan. LH4n 1,2 puntuko atzerakada izan du (%74,3tik %73,1era). Deigarria egiten da bilakaera hori, kontuan hartzen badugu urte horietan ia 10 puntu egin duela gora D irakastereduan ari diren irakasleen proportzioak (ikus datuak 1.3.1 atalean). DBH2n berriz, bilakaera hori positiboa izan da, 2017ko irakasleen arteko erabilera 2011koa baino 4,3 puntu altuagoa izanik (%69,4 vs %65,1).

Bilakaera ezberdin horien ondorioz, bi ikasmailetako irakasleen euskarazko erabilera-mailak asko hurbildu dira sei urteren buruan: 2011n LH4ko irakasleen arteko erabilera DBH2koena baino 9,2 puntu altuagoa zen, eta aldiz, azken neurketan alde hori ez da lau puntura iristen (3,7).


Irakasleen arteko erabilera horrek irakasleen eskolako erabilera euskaraz neurri handiagoan edo txikiagoan izatea baldintza dezakeenaren ikuspegitik, interesgarri zaigu datu hauek irakasleen artean neurturiko erabilerekin alderatzea. Deigarria egiten da, alde horretatik, irakasleen arteko erabilera-datu hauek irakasleekin *gelatik kanpo* duten antzekotasuna 2011-2017 artean (LH4n 2 puntuko jaitsiera, eta DBH2n, berriz, 4 puntu inguruko igoera; ikus beheago 2.4 atala). Antzekotasun horrek, irakasleen arteko euskarazko erabilerak irakasleen euskarazko erabilera-jokoa dezakeen funtsezko papera ekartzen digu gogora.

1.3.3.- IKASLEEN HIZKUNTZA-KONPETENTZIAK (EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA)


11. GRAFIKOA: IKASLEEN EUSKARAZKO HIZKUNTZA-KONPETENTZIA. LH4 ETA DBH2 MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2011-17 (%)



12. GRAFIKOA: IKASLEEN GAZTELANIAZKO HIZKUNTZA-KONPETENTZIA. LH4 ETA DBH2 MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2011-17 (%)



13. GRAFIKOA: IKASLEEN INGELESEZKO HIZKUNTZA-KONPETENTZIA. LH4 ETA DBH2 MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2011-17 (%)



Ebaluazio Diagnostikoan bereizten diren hiru mailek (“aurreratua”, “erdi-maila” eta “hasierakoa”), hezkuntza komunitatearen baitan ikasleek lortzeko helburu gisa jartzen diren hizkuntza-konpetentziekin dute lotura, eta maila horiek dira hemen bilakaera deskribatzeko baliatu ditugunak. Oro har, helburu horiek lortzeko moduan dira proba hauetan “erdi-maila” edo “maila aurreratua” lortzen duten ikasleak. Aldiz, “hasierako maila” soilik lortzen duten ikasleek, aipatu helburu horietara iristeko beharrezko mailaren azpitik leudeke.

Ebaluazio Diagnostikoa probaren baitan ikasleen euskarazko, gaztelaniazko eta ingelesezko konpetentziak neurtzeko egindako proben emaitzek oso errealitate eta bilakaera ezberdina marrazten dute hiru hizkuntzentzat. Euskarazko kasuan, LH4n zein DBH2n, 2011tik 2017ra nabarmen hazi da “hasierako maila”n geratzen diren ikasleen proportzioa, eta beherantz doa “maila aurreratua” lortzen dutenena.

12. TAULA: IKASLEEN EUSKARAZKO HIZKUNTZA-KONPETENTZIA. LH4 ETA DBH2
MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2011-2017

	Euskarazko hizkuntza-konpetentzia							
	LH4				DBH2			
	2011	2013	2015	2017	2011	2013	2015	2017
Maila aurreratua	32,4	25,7	25,3	24,4	20,9	20,7	16,0	16,6
Erdi-maila	37,0	43,1	37,8	37,8	41,9	41,0	37,0	37,0
Hasierako maila	30,6	31,1	36,8	37,8	37,2	38,3	47,0	46,4
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Oinarria (n)	17.935	18.854	19.604	19.141	16.117	14.373	17.720	18.700

13. TAULA: IKASLEEN GAZTELANIAZKO HIZKUNTZA-KONPETENTZIA. LH4 ETA DBH2
MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2011-2017

	Gaztelaniazko hizkuntza-konpetentzia							
	LH4				DBH2			
	2011	2013	2015	2017	2011	2013	2015	2017
Maila aurreratua	27,3	28,9	27,1	25,4	29,3	29,4	28,8	29,9
Erdi-maila	61,3	64,7	62,3	63,5	58,3	55,6	57,3	56,5
Hasierako maila	11,4	6,4	10,6	11,2	12,4	15,0	14,0	13,6
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Oinarria (n)	17.946	18.468	19.515	19.033	16.492	13.689	18.187	18.963

14. TAULA: IKASLEEN INGELESEZKO HIZKUNTZA-KONPETENTZIA. LH4 ETA DBH2
MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2011-2017

	Ingelesezko hizkuntza-konpetentzia							
	LH4				DBH2			
	2011	2013	2015	2017	2011	2013	2015	2017
Maila aurreratua	24,2	-	22,3	15,5	25,2	-	25,5	26,5
Erdi-maila	53,3	-	50,7	66,0	58,8	-	58,6	58,8
Hasierako maila	22,4	-	27,0	18,5	16,1	-	15,9	14,7
Guztira	100,0	-	100,0	100,0	100,0	-	100,0	100,0
Oinarria (n)	17.409	-	18.686	19.149	15.729	-	16.822	19.089

Ingelesez zein gaztelaniaz, berriz, “erdi-maila” eta “maila aurreratua” lortzen duten ikasleen proportzioak nabarmen altuagoak dira, eta horrez gain, ez da eman konpetentzietan –urrundik ere– euskarazkoetan eman denaren antzeko atzerakadarik.


Datuek argi erakusten dute, euskararen kasuan, zailtasun nabarmenak daudela ikasleentzat helburu gisa ezarrita dauden konpetentzia horiek ikasle guztiek lor ditzaten. Eta zailtasun horiek nabarmen areagotu direla 2011tik 2017ra. LH4n, epe horretan, 7,2 puntu egin du gora “hasierako maila” baino lortzen ez duten ikasleen proportzioak, azken neurketan %37,8 izatera iritsiz. Eta alderantzizkoa gertatu da euskaraz “maila aurreratua” lortzen duten ikasleekin: 8 puntuko galera izan du %32,4tik %24,4ra. DBH2n ere, antzera: “hasierako maila” duten ikasleen ehunekoa 9,2 puntu hazi da, 2017an ikasleen %46,4 izatera iritsiz. Beherantz doaz, aldiz, maila ertaineko eta aurreratuko konpetentziadun ikasleen proportzioak (hurrenez hurren, 4,9 eta 4,3 puntu egin dute behera aztertutako epean).

Oso bestelakoak izan dira kopuruak eta bilakaerak beste bi hizkuntzetan. Gaztelaniaz, %11,2 baino ez dira (2017an) “hasierako maila” soilik lortzen duten ikasleak, LH4n, eta DBH2n %13,6; eta proportzio nagusiek ez dute aldaketa handirik izan egindako lau neurketetan.


Ingelesez, azkenik, LH4n apaldu egin da maila “aurreratua” lortzen duten ikasleen proportzioa (%24tik %15era), baina ikasleen %80tik gora da “hasierako maila” gainditzeko duena (2017an, %81,5). DBH2n, bestalde hiru neurketetan kategoria bakoitzean biltzen diren ikasleen proportzioak antzekoak izan dira, eta “hasierako maila”tik gorako emaitzak lortu dituzten ikasleen proportzioa %85,3koa da (2017an).

1.3.4.- IKASLEEN HIZKUNTZA-KONPETENTZIAK KONBINATUTA


14. GRAFIKOA: IKASLEEN EUSKARA/GAZTELANIA HIZKUNTZA-KONPETENTZIAK, KONBINATUTA. LH4 ETA DBH2 MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2011-17 (%)



15. GRAFIKOA: IKASLEEN EUSKARA/INGELES HIZKUNTZA-KONPETENTZIAK, KONBINATUTA.. LH4 ETA DBH2 MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2011-17 (%)



16. GRAFIKOA: IKASLEEN GAZTELANIA/INGELES HIZKUNTZA-KONPETENTZIAK, KONBINATUTA.. LH4 ETA DBH2 MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2011-17 (%)



Ikasleek Ebaluazio Diagnostikoa proban lortzen dituzten hizkuntza-konpetentzien ikuspegia aberastu nahian, atal honetan hizkuntzak binaka konbinatuta aurkezten dira, erreferentzia gisa ikaslea harturik. Hizkuntza-bikote bakoitzerako (euskara/gaztelania, euskara/ingelese eta gaztelania/ingelese) ikasleak bi hizkuntza horietan erakutsitako mailak konbinatzen dira eta emaitzak lau multzotan sailkatu, ikasleak “hasierako mailatik gora” (hau da, erdi-mailan edo maila aurreratuan) zein hizkuntzetan dauden zehaztuz: “bietan bai”, “A hizkuntzan bai Bn ez”, “B hizkuntzan bai An ez” eta “bietan ez”.

Euskarazko konpetentziak gaztelaniazkoekin eta ingelesezkoekin konbinatzen diren kasuetan, datuek argi erakusten dute euskararen kaltetan bi kasuetan ematen den desoreka. Nabarmen gehiago dira gaztelaniaz edo ingelesez “bai” eta euskaraz “ez” lortzen duten ikasleak, alderantzizko kasuan daudenak baino.

15. TAULA: IKASLEEN EUSKARA/GAZTELANIA HIZKUNTZA-KONPETENTZIAK, KONBINATUTA. LH4 ETA DBH2 MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2011-2017

"Hasierako maila"tik gora	Euskara/Gaztelania konpetentziak, konbinatuta							
	LH4				DBH2			
	2011	2013	2015	2017	2011	2013	2015	2017
Bietan bai	67,2	67,4	61,3	60,0	61,1	59,5	51,4	52,3
Euskaraz bai gaztelaniaz ez	2,3	1,7	2,0	2,4	2,1	3,2	2,0	1,6
Gaztelaniaz bai euskaraz ez	21,5	26,3	28,2	28,9	27,1	25,9	35,1	34,7
Bietan ez	8,9	4,6	8,4	8,7	9,7	11,4	11,6	11,3
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Oinarria (n)	17.528	18.257	18.865	18.290	15.782	12.660	16.971	17.821

16. TAULA: IKASLEEN EUSKARA/INGELES HIZKUNTZA-KONPETENTZIAK, KONBINATUTA. LH4 ETA DBH2 MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2011-2017

"Hasierako maila"tik gora	Euskara/Ingelesa konpetentziak, konbinatuta							
	LH4				DBH2			
	2011	2013	2015	2017	2011	2013	2015	2017
Bietan bai	62,9	-	55,6	58,1	59,8	-	51,6	52,3
Euskaraz bai ingelesez ez	6,6	-	7,8	4,2	3,4	-	2,0	1,4
Ingelesez bai euskaraz ez	14,6	-	17,3	23,5	24,1	-	32,5	33,6
Bietan ez	15,8	-	19,2	14,2	12,6	-	13,9	12,7
Guztira	100,0		100,0	100,0	100,0		100,0	100,0
Oinarria (n)	17.409		18.686	18.957	15.729		16.821	18.582

17. TAULA: IKASLEEN GAZTELANIA/INGELES HIZKUNTZA-KONPETENTZIAK, KONBINATUTA. LH4 ETA DBH2 MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2011-2017

"Hasierako maila"tik gora	Gaztelania/Ingelesa konpetentziak, konbinatuta							
	LH4				DBH2			
	2011	2013	2015	2017	2011	2013	2015	2017
Bietan bai	73,7	-	69,9	76,3	78,1	-	76,7	78,2
Gaztelaniaz bai ingelesez ez	15,0	-	19,7	12,6	10,2	-	9,8	8,6
Ingelesez bai gaztelaniaz ez	3,8	-	3,1	5,4	5,9	-	7,4	7,4
Bietan ez	7,4	-	7,4	5,8	5,9	-	6,1	5,8
Guztira	100,0		100,0	100,0	100,0		100,0	100,0
Oinarria (n)	17.409		18.686	18.279	15.729		14.549	18.163

Esate baterako, 2017an, "hasierako maila"tik gorako emaitza "gaztelaniaz bai euskaraz ez" lortu duten ikasleen proportzioa %28,9koa izan da LH4n. Alderantzizko kasuan ("euskaraz bai gaztelaniaz ez") dauden ikasleen ehunekoa %2,4koa baino ez da urte horretan. Aldea are nabarmenagoa da DBH2n. Urte berean, "gaztelaniaz bai euskaraz ez" ikasleen proportzioa %34,7koa da, eta alderantzizko kasukoa berriz ez da %2ra iristen (1,6).

Euskarazko konpetentzien kaltetan ematen den desoreka horri gehitu behar zaio bilakaeraren datua: "gaztelaniaz bai euskaraz ez" eta "ingelesez bai euskaraz ez" motako emaitzak dituzten ikasleen proportzioak gora egin du 2011tik 2017ra, bi ikasmailetan. Gaztelaniaren kasuan LH4n 7,4 puntu egin du gora (%21,5etik %28,9ra) eta DBH2n 7,6 (%27,1etik %34,7ra). Ingelesaren kasuan ere kategoria horien hazkundea nabarmena izan da: LH4n 8,9 puntu (%14,6tik %23,5era) eta DBH2n 9,5 (%24,1etik %33,6ra). Ukipen egoeran dauden hizkuntzen erabilerarako –edo erabilera faltarako– haien arteko *konpetentzia erlatiboak* izan ohi duen garrantzia kontuan izanik, pentsa izatekoa da desoreka argia adierazten duten datu hauek, eta azken urteotan neurtu den horien goranzko bilakaerak, ez direla ikasleen eskola-giroko euskarazko erabileren indargarri edo bultzatzaile izango.

Ikasleen gaztelania/ingelese konpetentzia konbinatuei dagokionez, bestalde, datuek ez dute erakusten euskararen kasuan deskribatu ditugun pareko desorekarik. LH4n, altuagoak dira "gaztelaniaz bai ingelesez ez" kasuen proportzioak alderantzizkoak baino (hurrenez hurren, 2017an, %12,6 eta %5,4), DBH2n, aldiz, askoz antzerakoagoak (hurrenez hurren, 2017an, %8,6 eta %7,4).

2.- IKASLEEN EUSKARAREN ERABILERA ESKOLA GIROAN (2011-2017)


Lanaren 2. atal honetan ikasleen eskola-giroko hizkuntza-erabileren datuak eskaintzen dira. Datu aitortuak dira, ikasleek Ebaluazio Diagnostikoa probaren testuinguruan emandakoak. Arrue Ikerketan ohikoa dugun moduan, lau oinarritzko erabilerei buruzko datuak eskaintzen dira hemen: *ikaskideekin gelan*, *ikaskideekin jolaslekuan*, *irakasleekin gelan* eta *irakasleekin gelatik kanpo*. Ondoren, aipatu lau datu horiek konbinatzen dituen erabilera-datu trinkoa eskaintzen da: (ikasleen) *eskolako erabilera orokorra*.

Atal honetako lehen bost azpiataletan (2.1etik 2.5era), datuak aurkezteko garaian, grafikoetan 2011-2017 bilakaeraren ikuspegi orokorra erakusteari eman zaio lehentasuna. Urteka eta kategoriaka izandako gora-behera zehatzagoak, berriz, tauletan kontsulta daitezke.

2.6 azpiatalean, azkenik, datuen oinarria berdina den arren, azterketa egiteko modua desberdina da: puntu horretan *luzetarako* ikuspegitik (edo ikuspegi *longitudinaletik*) aztertu dira datuak. Hala, 2011n LH4n zegoen ia ikasle-multzo bera 2015ean berriz aztertzen da DBH2n, eta era horretan eskolako erabileretan ikasleria horrek izandako bilakaeraren azterketa egin da. Berdin aztertu da bigarren ikasle-multzo bat: 2013an LH4n ikasten ari zena eta 2017an DBH2n.

2.1.- IKASKIDEEKIN GELAN

17. GRAFIKOA: IKASLEEN EUSKARAZKO ERABILERA IKASKIDEEKIN GELA BARRUAN. LH4 ETA DBH2 MAILETAKO IKASLEAK, EAE, 2011-2017. Erabilera-tasa esleituak (%)



Grafikoan laburtzen den datu orokorrari erreparatzen badiogu (tasa esleitu), 2011tik 2017ra ikasleek euren ikaskideekin *gela* daudenean erabiltzen duten hizkuntzaren bilakaera positiboa izan da euskararen erabilerrari dagokionean, bi ikasmailetan: LH4n 2,3 puntu egin du gora (%64,2tik %66,5era) eta DBH2n 1,2 (%36,1etik %37,3ra) .

Aldiz, lau neurketen datuak kontuan hartuta, esan genezake 2017ko datuak nolabait eten edo mantsotu egin duela bi ikasmailetan aurreko bi datuen goranzko joera, azken neurketan 2015eko datuarekiko atzerakada txiki bat izanik: 1,7 puntu behera LH4ko ikasleengan, eta puntu 1 DBH2koengan.


Gainerakoan, 2017ko datuek aurreko urteetan jasotakoen ildoari jarraitzen diote, bi ikasmailen datuen arteko distantziari dagokionean. Eskola ingurunean aztergai ditugun lau erabilerraren artean, honetan ematen da, askogatik, alderik handiena: lau neurketetan erabilera-tasen arteko aldea oso handia da, 25-30 puntu altuagoa LH4n DBH2n baino.

18. TAULA: IKASLEEK IKASKIDEEKIN GELA BARRUAN ERABILTZEN DUTEN HIZKUNTZA. LH4 ETA DBH2 MAILETAKO IKASLEAK, EAE, 2011-2017

	Zein hizkuntzatan hitz egiten duzu eskolako ikaskideekin gela barruan?							
	LH4				DBH2			
	2011	2013	2015	2017	2011	2013	2015	2017
Beti euskaraz	36,4	40,1	45,7	41,5	14,4	13,7	15,2	12,4
Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago	23,8	23,1	20,3	20,7	13,7	14,7	15,0	13,4
Bietan berdin	14,0	11,9	9,3	12,7	11,5	11,7	10,8	13,6
Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago	12,0	11,4	10,2	12,2	22,7	27,8	26,2	32,5
Beti gaztelaniaz	13,3	12,7	13,7	12,2	37,4	31,8	32,7	27,9
Beste hizkuntzan batean	0,5	0,7	0,8	0,6	0,4	0,3	0,2	0,2
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Oinarria (n)	18.334	19.075	19.773	19.347	16.823	17.102	18.045	19.180
Erabilera-tasa esleitu (%)	64,2	66,2	68,2	66,5	36,1	37,5	38,3	37,3

2.2.- IKASKIDEEKIN JOLASLEKUAN

18. GRAFIKOA: IKASLEEN EUSKARAZKO ERABILERA IKASKIDEEKIN JOLASLEKUAN. LH4 ETA DBH2 MAILETAKO IKASLEAK, EAE, 2011-17. Erabilera-tasa esleituak (%)



19. TAULA: IKASLEEK IKASKIDEEKIN JOLASLEKUAN ERABILTZEN DUTEN HIZKUNTZA. LH4 ETA DBH2 MAILETAKO IKASLEAK, EAE, 2011-17

	Zein hizkuntzatan hitz egiten duzu zure gelako lagunekin jolaslekuan?							
	LH4				DBH2			
	2011	2013	2015	2017	2011	2013	2015	2017
Beti euskaraz	16,6	17,6	20,8	19,8	11,1	10,3	11,0	9,2
Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago	12,2	13,8	13,3	13,3	7,0	6,5	7,2	6,0
Bietan berdin	11,3	13,1	10,7	12,9	6,4	6,6	5,2	5,9
Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago	22,0	22,6	19,2	18,8	16,5	21,2	18,4	20,6
Beti gaztelaniaz	37,4	32,2	35,7	34,8	58,6	54,9	58,0	58,1
Beste hizkuntzan batean	0,5	0,7	0,3	0,4	0,3	0,5	0,2	0,3
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Oinarria (n)	18.349	19.075	19.773	19.347	16.818	17.102	18.045	19.180
Erabilera-tasa esleituak (%)	36,9	40,2	40,9	40,9	23,7	23,8	23,6	21,8


Ikasleek jolaslekuan ari direnean euren ikaskideekin erabiltzen duten hizkuntzan, 2011-2017ko bilakaera ezberdina izan da bi ikasmailetan.

LH4n, euskarazko erabileraren 2017ko tasa esleituak (%40,9) aurreko bi neurketen (2013 eta 2015) maila ia berean kokatzen da (%40,2 eta %40,9, hurrenez hurren). Hala, 2011-2017 bilakaera positiboa da (4 puntu gora), baina kontuan hartu behar da igoera hori ia osorik 2011tik 2013ra eman zela.

DBH2n aldiz, 2017ko datuak aurreko hiru neurketetan maila ia berdinean zegoen erabilerarekiko jaitsiera dakar (2011tik 2015era bitarteko datuak %23,7, %23,8 eta %23,6 izan ziren). Aldaketa horrek negatibo egiten du, halaber, 2011tik 2017rako bilakaera: zehazki, 1,9 puntuko jaitsiera gertatu da euskarazko batez besteko erabileran. Ikuspegi orokorrago bat hartuz, eta 2011-2017 tarte aintzat hartuta, jolaslekuko hau da DBH2n neurturiko lau erabileretan bilakaera negatiboa izan duen bakarra.

2.3.- IRAKASLEEKIN GELAN

19. GRAFIKOA: IKASLEEN EUSKARAZKO ERABILERA IRAKASLEEKIN GELA BARRUAN. LH4 ETA DBH2 MAILETAKO IKASLEAK, EAE, 2011-17. Erabilera-tasa esleituak (%)



Ikasleek irakasleekin gelan darabilten hizkuntzari dagokionean, 2011 eta 2017 urteen arteko euskarazko erabileren bilakaera positiboa izan da bi ikasmailetan: 1,5 puntu gora LH4n (%76,7tik %78,2ra) eta 3,4 DBH2n (%64,5etik %67,9ra).

Nolanahi ere, bilakaera orokor horiek positiboak diren arren, 2017ko datuak baxuagoak dira 2013an eta 2015ean neurturiko euskarazko erabilera-mailak baino, ikasmaila batean zein bestean.


LH4n, azken datuak, 2013an neurtu zen daturik altuenarekiko (%80) 1,8 puntuko jaitsiera suposatzen du. DBH2n, 2011tik 2015erako bilakaera positiboa oso nabarmena izan zen (5,5 puntuko igoera lau urtetan). Azken datuak, eten egiten du joera hori, 2015ean neurturiko %70,0ko erabileratik 2,1 puntu atzera eginaz.

20. TAULA: IKASLEEK IRAKASLEEKIN GELA BARRUAN ERABILTZEN DUTEN HIZKUNTZA. LH4 ETA DBH2 MAILETAKO IKASLEAK, EAE, 2011-17

	Adieraz ezazu normalean zein hizkuntzatan... A. ...hitz egiten diezun ZUK irakasleei gelan							
	LH4				DBH2			
	2011	2013	2015	2017	2011	2013	2015	2017
Beti euskaraz	53,0	59,6	59,0	57,2	36,5	42,4	42,0	40,2
Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago	20,5	18,3	19,3	18,2	24,5	23,9	26,2	23,5
Bietan berdin	13,1	10,4	9,6	11,4	12,6	11,3	11,0	13,5
Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago	7,1	6,0	6,3	6,6	13,2	11,1	11,7	13,3
Beti gaztelaniaz	5,8	5,1	4,6	5,3	12,7	10,8	8,5	9,0
Beste hizkuntza batean	0,5	0,7	1,1	1,2	0,5	0,5	0,7	0,5
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Oinarria (n)	18.347	19.075	19.764	19.347	16.822	17.102	18.043	19.180
Erabilera-tasa esleitua (%)	76,7	80,0	79,9	78,2	64,5	68,7	70,0	67,9

2.4.- IRAKASLEEKIN GELATIK KANPO

20. GRAFIKOA: IKASLEEN EUSKARAZKO ERABILERA IRAKASLEEKIN GELATIK KANPO.
LH4 ETA DBH2 MAILETAKO IKASLEAK, EAE, 2011-17. Erabilera-tasa esleituak (%)



Ikasleek irakasleekin gelaz kanpo duten harremanean, 2011tik 2017ra bilakaera ezberdina izan dute euskarazko erabilerek bi ikasmailetan: tasa esleituari 2 puntuko jaitsiera izan da LH4n, eta 3,9 puntuko igoera DBH2n.

LH4ko ikasleek kasuan, 2015ean eman zen lehen jaitsiera, 2013ko %68,9tik 2,1 puntu jaitsiz (%66,8ra). 2017ko datua bi urte lehenagokoaren maila bertsuan dago (0,6 puntu aldea) euskarazko erabileraren tasa %66,2an utziz. 2011-2017 urteetako bilakaera orokorrari erreparatuta, LH4n eskolan neurturiko lau erabileretatik, hau da ikasmaita honetako ikasleek bilakaera negatiboa izan duen bakarra.

DBH2n, aipatu bezala, 2011-2017 arteko bilakaera orokorra positiboa izan da, ia lau puntu igoerarekin (%56,4tik %60,3ra). Azken datuak, nolana ere, eten egin du aurreko hiru datuetako goranzko joera, 2015tik 2017ra atzerakada izanik. Zehazki, azken neurtetako tasa esleituari 2015ekoa baino 1,6 puntu baxuagoa da eta 2013an neurturiko erabileraren maila berean kokatzen da (%60,3).


Bi ikasmailetak euskarazko erabilera-mota honek sei urte hauetan izandako bilakaera ezberdinarekin, 2011tik 2017ra nabarmen gutxitu da bi ikasmailetak datuen arteko distantzia: 2011ean gelatik kanpo irakasleekin neurturiko euskarazko erabilera ia 12 puntu altuagoa zen LH4n DBH2n baino (%68,2 vs %56,4). Azken neurtetan aldiz, alde hori ia erdira gutxitu da, sei puntu eskasekoa izatera iritsiz (%66,2 vs %60,3).

21. TAULA: IKASLEEK IRAKASLEEKIN GELATIK KANPO ERABILTZEN DUTEN HIZKUNTZA. LH4 ETA DBH2 MAILETAKO IKASLEAK, EAE, 2011-17

	Adieraz ezazu normalean zein hizkuntzatan... B. ...hitz egiten diezun ZUK irakasleei gelatik kanpo.							
	LH4				DBH2			
	2011	2013	2015	2017	2011	2013	2015	2017
Beti euskaraz	50,0	50,4	49,6	49,8	34,2	37,8	38,6	37,9
Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago	14,1	15,1	13,8	12,3	18,0	19,2	20,7	18,9
Bietan berdin	11,1	10,0	9,0	9,4	11,1	10,3	9,5	10,3
Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago	8,6	9,1	9,6	9,7	12,2	11,9	12,2	12,7
Beti gaztelaniaz	15,6	14,6	16,8	17,7	24,0	20,2	18,5	20,0
Beste hizkuntzan batean	0,6	0,8	1,2	1,0	0,4	0,6	0,5	0,3
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Oinarria (n)	18.343	19.075	19.764	19.347	16.821	17.102	18.043	19.180
Erabilera-tasa esleitu (%)	68,2	68,9	66,8	66,2	56,4	60,3	61,9	60,3

2.5.- ESKOLAKO ERABILERA OROKORRA

21. GRAFIKOA: IKASLEEN ESKOLAKO ERABILERA OROKORRA. LH4 ETA DBH2 MAILETAKO IKASLEAK, EAE, 2011-17. Erabilera-tasa esleituak (%)



Ikasleen *eskolako erabilera orokorrak* eskolan neurturiko lau erabileren datuak konbinatzen ditu, datu orokor bakarrean laburtuz. Modu horretan, ikasleek eskolan ematen duten denbora guztian egiten duten hizkuntza-erabilaren euskarazko neurria islatu nahi du (ikus aldagaiaren osaketa Xehetasun Metodologikoen 5.5 atalean).

2011-2017 arteko bilakaera osoa aintzat hartuta, eskolako euskarazko *erabilera orokorrak*, batez beste, 2,1 puntu gora egin du LH4n (% 56,4tik %58,5ra). DBH2n, bi urte horietako erabilera maila bertsuan dago (0,8 altuago azken neurketan 2011n baino).

Bi urte horien artean izandako aldaketei erreparatuta, LH4n azken datuak galgatu egin du aurreko hiru neurketetako goranzko joera: 2011tik 2015era 3,0 puntuko igoera izan ondoren, azken datuak 0,9 puntuko jaitsiera txiki bat dakar (%59,4tik %58,5era). DBH2n, 2011tik 2015era 2,4 puntuko igoera izan ondoren, azken datua 1,6 puntu baxuagoa izan da, aurreko hiru neurketen joera aldatuz.


22. TAULA: IKASLEEN ESKOLAKO ERABILERA OROKORRA. LH4 ETA DBH2 MAILETAKO IKASLEAK, EAE, 2011-17 (%)

	Eskola erabilera (multzotan)							
	LH4				DBH2			
	2011	2013	2015	2017	2011	2013	2015	2017
Guztia euskaraz, %100,0	11,3	12,4	14,2	14,0	8,3	8,3	8,5	7,4
Euskara %70,1-%99,9	22,4	24,3	23,5	23,0	11,1	10,7	10,9	9,1
Euskara %30,1-%70,0	44,2	44,4	43,3	43,1	36,0	41,5	41,9	43,6
Euskara %1,0-%30,0	17,4	14,9	15,2	15,6	32,7	29,5	30,7	32,0
Euskararik ez, den-dena erdaraz, %0,0	4,7	3,9	3,8	4,3	11,9	10,0	8,0	8,0
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Oinarria (n)	18.179	19.075	19.764	19.343	16.745	17.102	18.043	19.180
Erabilera-tasa esleitu (%)	56,4	59,0	59,4	58,5	39,9	41,7	42,3	40,7

2.6.- IKASLEEN ESKOLAKO ETA ETXEKO ERABILEREN LUZETARAKO AZTERKETA¹ (2011-2015 eta 2013-2017)

2.6.1.- Eskolako erabilera orokorraren *luzetarako* azterketa

22. GRAFIKOA: IKASLEEN ESKOLAKO ERABILERA OROKORRA (TASA ESLEITUAK). LH4 ETA DBH2 MAIETAKO IKASLEAK, EAE, LUZETARAKOA (2011-15 / 2013-17)



23. TAULA: IKASLEEN ESKOLAKO ERABILERA OROKORRA (TASA ESLEITUAK). LH4 ETA DBH2 MAIETAKO IKASLEAK, EAE, LUZETARAKOA (2011-15 / 2013-17).

	Eskolako erabilera orokorra (multzotan)			
	2011-2015		2013-2017	
	LH4	DBH2	LH4	DBH2
Guztia euskaraz, %100,0	11,3	8,5	12,4	7,4
Euskara %70,1-%99,9	22,4	10,9	24,3	9,1
Euskara %30,1-%70,0	44,2	41,9	44,4	43,6
Euskara %1,0-%30,0	17,4	30,7	14,9	32,0
Euskararik ez, den-dena erdaraz, %0,0	4,7	8,0	3,9	8,0
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0
Oinarria (n)	18.179	18.043	19.075	19.180
Erabilera-tasa esleitu (%)	56,4	42,3	59,0	40,7
Diferentzia	-14,1		-18,3	

Atal honetan aldatu egingo dugu datuei begiratzeko modua: datuen urtez urteko bilakaeraren “serie”tik, *luzetarako* ikuspegira (edo ikuspegi longitudinalera) pasako gara. 2017ko neurketarekin, bigarren aldiz mota honetako alderaketa egiteko aukera dugu, neurri handian, berdinak diren ikasle-multzoen erabilerak alderatuz bi une ezberdinetan: 2011ean LH4n ziren ikasle gehien-gehienak lau urte geroago, 2015ean, DBH2n ziren, eta berdin gertatzen da 2013-2017koekin (ikus oin-oharra).

Eskolako erabilera orokorraren bi datu multzoak grafikoa eta taulan alderatuz, argi ateratzen dugu lehen ondorioa: 2013an LH4n zen ikasleria DBH2ra istean (2017) eskolako erabileretan izan duen atzerakada, 2011ko ikasleek tarte berean izan zutena baino handiagoa izan da: 2011-2015 alderaketako ikasle-multzoak 14,1 puntuko jaitiera izan zuen LH4ko datuetatik DBH2koetara. 2013-2017 alderaketako ikasle-multzoan, berriz, alde edo “koska” hori 18,3 puntukoa izan da; hau da, 4,2 puntu handiagoa.

¹ Atal honetako alderaketak *luzetarako* izaera (edo longitudinala) duela esaten dugu, bi kasuetan, neurri handian ikasleria berdinen bi une ezberdinetako datuak alderatzen ari garela, ustez behintzat: urte horietan probaren galdetegiak bete dituzten guztiak. Dena den, ikasleen banakako jarraipenik egiterik ez dugu izan, eta beraz bada ikasleen proportzio bat alderatutako bi talde horietan aldatuko zena: EAEtik joan edo etorri direnak, ikasmaita bat errepikatu dutenak, eta abar. Dena den, aldatu diren ikasleak hizkuntza-erabileraren aztergaiarekiko denetarikoz ezaugarriak dituztenak izan daitezkeen neurrian, alderaketa honek informazio interesgarri eta baliagarria eskaintzen duelakoan gaude.

Luzetarako ikuspegi batetik, 2013an LH4n ziren ikasleek, euskarazko erabileraren aldetik abiapuntu altuagoa zuten 2011koek baino (%59,0ko *eskolako erabilera orokorra* izan zuten, 2011koen %56,4koaren aldean). Baina abiapuntu altuago hori ez da islatu ikasle-multzo hori DBH2ra iritsi denean. Alderantziz, 2017ko DBH2ko *erabilera orokorraren* datua (%40,7) 2015ekoa baino baxuagoa izan da (%42,3), modu horretan *luzetarako* alderaketan 2013-2017 ikasleen *diferentzia* edo atzerapausoa handiago eginaz.

Erabilera orokorrak erakusten duen joera hau errepikatu egiten da aztertutako eskolako lau erabileretan: *ikaskideekin gelan*, *ikaskideekin jolaslekuan*, *irakasleekin gelan* eta *irakasleekin gelatik kanpo*. Lau kasuetan, LH4tik DBH2ra igarotzean, 2013-2017 alderaketako ikasle-multzoak atzerakada handiagoa izan du 2011-2015ekoak baino. Ikus datu guztien xehetasuna eranskinetako 7.2.29 atalean.

2.6.2.- Eskolako erabilera orokorraren *luzetarako* azterketa, aldagaien arabera

24. TAULA: IKASLEEN ESKOLAKO ERABILERA OROKORRA (ERABILERA-TASA ESLEITUAK, %) IRAKASTEREDUAREN ARABERA. LH4KO ETA DBH2KO IKASLEAK, EAE, LUZETARAKOA (2011-15 / 2013-17).

IRAKASTEREDUA	2011-2015			2013-2017		
	LH4	DBH2	Diferentzia	LH4	DBH2	Diferentzia
A eredu	7,5	4,6	-2,9	11,4	4,4	-7
B eredu	37,7	23,0	-14,7	39,9	21,9	-16,0
D eredu	70,4	55,2	-15,2	70,7	51,5	-19,2

25. TAULA: IKASLEEN ESKOLAKO ERABILERA OROKORRA (ERABILERA-TASA ESLEITUAK, %) IKASTETXEAREN TITULARITATEAREN ARABERA. LH4KO ETA DBH2KO IKASLEAK, EAE, LUZETARAKOA (2011-15 / 2013-17).

TITULARITATEA	2011-2015			2013-2017		
	LH4	DBH2	Diferentzia	LH4	DBH2	Diferentzia
Publikoa	60,8	46,7	-14,1	63,0	44,3	-18,7
Itunpekoa	51,8	38,4	-13,4	54,9	37,5	-17,4

Ikasleen erabileraren *luzetarako* azterketan gorago ikusi ditugun ikasleen *eskolako erabilera orokorraren* datuen informazioa aberastu nahian, atal honetan datu horiek lau aldagai askeren arabera eskaintzen dira: *irakasteredua*, ikastetxearen *titularitatea*, *etxeko erabilera* (denak batera daudenean) eta *eremu soziolinguistikoa*. Kasu honetan, aldagai bakoitzaren kategoria bakoitzean *luzetarako diferentzia* edo “koska” hori ikasle-multzo bakoitzarentzat zenbatekoa den adierazten da (2011-2015 eta 2013-2017).

Irakasteredua aldagaiaren arabera sailkatuta, ikasle multzo bereko bi unean arteko (LH4tik DBH2ra) *diferentzia* edo atzerakada hiru irakastereduetan ematen da. Zenbaki absolututan, D eta B eredueta da *diferentzia* hori handien, baina eredu bakoitzeko hizkuntza-erabileren datuak kontuan hartuta, esango genuke, proportzionalki, nabarmen handiagoa dela A ereduko *diferentzia* B eta D ereduetaoak baino. Bestalde *luzetarako* bi alderaketen datuetan (2011-2015 eta 2013-2017) ikusten dugu lehenengotik bigarrenera hiru eredueta egin duela gora *diferentziak*: 4,1 puntu handitu da A eredueta (2,9tik 7,0ra), 1,3 puntu B eredueta (14,7tik 16,0ra) eta D eredueta 4,0 puntu (15,2tik 19,2ra).

26. TAULA: IKASLEEN ESKOLAKO ERABILERA OROKORRA (ERABILERA-TASA ESLEITUAK, %) ETXeko ERABILERAREN ARABERA (DENAK BATERA DAUDENEAN). LH4KO ETA DBH2KO IKASLEAK, EAE, LUZETARAKOA (2011-15 / 2013-17).

ETXeko ERABILERA	2011-2015			2013-2017		
	LH4	DBH2	Diferentzia	LH4	DBH2	Diferentzia
Euskaraz bakarrik	88,3	85,9	-2,4	88,0	82,1	-5,9
Euskaraz gehiago	77,2	71,5	-5,7	75,7	64,9	-10,8
Bietan berdin	70,7	59,0	-11,7	68,2	56,4	-11,8
Gaztelaniaz gehiago	58,0	46,2	-11,8	59,0	46,9	-12,1
Gaztelaniaz bakarrik	45,1	29,7	-15,4	47,8	29,6	-18,2
Beste hizkuntza batez	43,6	28,0	-15,6	46,1	25,8	-20,3

27. TAULA: IKASLEEN ESKOLAKO ERABILERA OROKORRA (ERABILERA-TASA ESLEITUAK) EREMU SOZIOLINGUISTIKOAREN ARABERA. LH4KO ETA DBH2KO IKASLEAK, EAE, 2011-2017.

EREMU SOZIOLINGUISTIKOA	2011-2015			2013-2017		
	LH4	DBH2	Diferentzia	LH4	DBH2	Diferentzia
%80-%100	88,0	92,2	4,2	88,5	92,3	3,8
%60-%79,9	84,8	80,0	-4,8	84,4	76,9	-7,5
%40-%59,9	61,6	47,1	-14,5	61,8	42,9	-18,9
%20-%39,9	46,3	30,7	-15,6	51,1	30,5	-20,6
%0-%19,9	39,8	26,8	-13,0	47,5	26,5	-21,0

Ikastetxearen *titularitatearen* arabera ikusten dugu bi sareetan indar edo neurri berdintsuarekin ematen dela neurtutako bi uneen (LH4 eta DBH2) arteko *diferentzia* edo atzerakada. 2011-2015 ikasle-multzoaren kasuan, adibidez, 14,1 puntukoa izan da ikastetxe publikoetan (%60,8tik %46,7ra) eta itunpekoetan 13,4 puntukoa (%51,8tik %38,4ra). Bestalde *luzetarako* bi alderaketen artean, 2011-2015ekoarekin alderatuz, 2013-2017ko multzoan berdintsu egin du gora *diferentzia* horrek bi sareetan: 4,6 puntu ikastetxe publikoetan, eta 4,0 itunpekoetan.


Etxeko erabileraren arabera, nabarmentzekoa da, batetik, *luzetarako* erabileren arteko *diferentzia* edo atzerapausoa handiagoa dela etxean (nagusiki) gaztelaniaz aritzen diren ikasleen artean (nagusiki) euskaraz aritzen direnen artean baino. 2011-2015 ikasle-multzoan, adibidez, etxean “euskaraz bakarrik” kategoriako ikasleen *diferentzia* 2,4 puntukoa izan zen eta etxean “gaztelaniaz bakarrik” kategorian, berriz, 15,4 puntukoa. Horrez gain, *luzetarako* bi alderaketen artean, azpimarratzekoa da *diferentzia*, proportzionalki, gehiago handitu dela etxean (nagusiki) euskaraz aritzen diren ikasleen artean, (nagusiki) gaztelaniaz aritzen direnetan baino: “euskaraz bakarrik” kategorian 3,5 puntu hazi da (2011-2015 alderaketan 2,4koa zen soilik eta 2013-2017an 5,9 puntukoa izatera pasa da) eta “euskaraz gehiago” kategorian 5,1eko hazkundea izan du (2011-2015 alderaketan 5,7koa zen eta 2013-2017an 10,8 puntukoa izatera pasa da). Aldi berean, “gaztelaniaz bakarrik” egiten dutenen galera 2,8 puntu hazi da (15,4tik 18,2ra) eta “gaztelaniaz gehiago” aritzen direnengan 0,3 puntu (11,8tik 12,1era).

Azkenik, *eremu soziolinguistikoaren* arabera, lehenik azpimarratzekoa da *diferentziek* eremuaren euskalduntasunarekin lotura dutela: euskaldunen proportzioa %80-100 bitartekoa duen eremuan, *diferentzia* beste guztien alderantzizkoa da, hau da, DBH2ko ikasleen erabilera altuagoa da LH4koena baino (4,2 puntuko igoera 2011-2015eko multzorako eta 3,8 puntu 2013-2017korako). %60-79,9 eremuan *diferentziak* 5-7 puntukoak dira, eta beste hiru eremuetan, berriz, 13 puntu edo hortik gorakoak. Bestalde, eremu euskaldunenaren (%80-100) aipatutako salbuespenarekin, 2011-2015 ikasle-multzotik 2013-2017 ikasle-multzora *diferentzien* edo galeren igoera eremu euskaldun zein erdaldunetan gertatu da: proportzionalki *diferentzia* gehien handitu den eremuak %0-19,9 (13,0tik 21,0ra) eta %60-79,9 dira (4,8tik 7,5era).

Laburtuz, esango genuke, *luzetarako* azterketan LH4 eta DBH2ko ikasleen erabileren artean neurtzen diren *diferentziak* aldatu egiten direla kategorien arabera, baina, neurri batean edo bestean, kasurik gehien-gehienetan galerak ematen direla. Bestalde, *luzetarako* lehen azterketatik (2011-2015) bigarrenera (2013-2017) *diferentzietan* gertatu den handitzeak ez die eragin soilik eskolan euskaraz egiteko ezaugarri soziolinguistiko zailenak dituzten ikasle-kategoriei; eskolan euskarazko erabilera altuak dituzten ikasleen artean ere garrantzia hartu du (proportzionalki, edo ikuspegi kualitatibo batetik).

2.6.3.- Ikasleen etxeko erabileraren *luzetarako* azterketa

23. GRAFIKOA: IKASLEEK ETXEAN DUTEN EUSKARAZKO ERABILERA (DENAK BATERA DAUDENEAN) (TASA ESLEITUAK). LH4 ETA DBH2 MAILETAKO IKASLEAK, EAE, LUZETARAKOA (2011-15 / 2013-17), (%)



28. TAULA: IKASLEEK ETXEAN ERABILTZEN DUTEN HIZKUNTZA (TASA ESLEITUAK). LH4 ETA DBH2 MAILETAKO IKASLEAK, EAE, LUZETARAKOA (2011-15 / 2013-17).

	Etxekoek, denek, batera zaudetenean (jatorduetan, telebistan...) zein hizkuntzatan hitz egiten duzue?			
	2011-15		2013-17	
	LH4	DBH2	LH4	DBH2
Beti euskaraz	11,0	9,7	12,5	11,8
Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago	7,8	7,6	8,6	5,0
Bietan berdin	8,2	4,9	8,5	5,9
Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago	15,6	16,1	18,4	10,0
Beti gaztelaniaz	54,1	58,0	48,0	63,5
Beste hizkuntzan batean	3,2	3,8	3,9	3,8
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0
Oinarria (n)	18.403	18.045	19.001	19.059
Erabilera-tasa esleitua (%)	24,9	21,8	27,8	21,0
Diferentzia	-3,1		-6,8	

Etxeko erabileraren datu hauek kontuan izanik, ez dirudi *luzetarako* ikuspegi batetik 2011-2015 ikasle-multzotik 2013-2017 ikasle-multzora gertatu den atzerakada eskolako eremura mugatzen denik. 2011-2015 ikasle-multzoari erreparatuta, ikusten dugu LH4n zeudenetik DBH2ra igaro zirenean, aitortzen zuten etxeko erabilera-tasa esleitua 3,1 puntu apaldu zela (%24,9tik %21,8ra). Aldiz, 2013-2017 ikasle-multzoaren kasuan, jaitiera hori 6,8 puntukoa izan da tarte berean (%27,8tik %21,0ra): 3,7 puntu handiagoa, beraz.

Ikasle hauek LH4tik DBH2ra igarotzean aitortu dituzten *etxeko erabilerak* kategoriak aztertzen ditugunean, deigarria egiten da “gaztelaniaz euskaraz baino gehiago” eta “beti gaztelaniaz” kategorien artean eman den aldaketa (ikus 28. taula). 2011-2015 alderaketako ikasle-multzoaren kasuan, ikusten dugu LH4ko datutik DBH2kora “beti gaztelaniaz” kategoriako proportzioak 4 bat puntu egin zuela gora (%54,1etik %58ra), “gaztelaniaz euskaraz baino gehiago”ko proportzioak antzera mantentzen ziren bitartean. Aldiz, 2013-2017 ikasle-multzoaren kasuan, “beti gaztelaniaz” kategoriako proportzioak 15,5 puntu egin du gora, “gaztelaniaz euskaraz baino gehiago” kategoriako datua 8,4 puntu apaldu delarik. Badirudi, beraz, 2013-2017 ikasle-multzoaren kasuan, etxean euskarazko erabilera txiki edo mugatu bat zuten ikasle asko, erabat gaztelaniaz aritzera pasa direla LH4tik DBH2rako aldaketan.

3.- ESKOLA-GIROKO ERABILEREN ALDERAKETAK

Atal honetan ikasle guztien batez besteko erabilera orokor horien gaineko bi alderaketa eskaintzen dira. Lehena (3.1 azpiatala), aldagai askeen arabera da, eta ikasle guztien *eskolako erabilera orokorraren* datuak sei aldagai askeren arabera gurutzatuta eskaintzen dira. Bigarren alderaketan (3.2 azpiatala) datuak *irakastereduaren* arabera berezita agertzen dira. A, B eta D ereduko ikasleen *erabilera orokorren* bilakaerak aurkezten dira lehenik, eta jarraian D ereduko datuak aztertzen dira xehetasun gehiagorekin.

3.1.- IKASLEEN ESKOLAKO ERABILERAK ALDAGAI ASKEEN ARABERA


Atal honetan, LH4ko eta DBH2ko ikasleen eskolako erabilerak aldagai askeen arabera antolatuta eskaintzen eta aztertzen dira. Ondorengo sei aldagai askeen arabera, hain zuzen: *eremu soziolinguistikoa, sexua, ikasleen etxeko hizkuntza-erabilera* (denak batera daudenean), *ikasleen eta euren gurasoen jatorria, ikastetxeko ISEK indizea eta ikastetxearen titularitatea*.

Aldagai guztien kasuan, alderaketak ikasleen *eskolako erabilera orokorrarekin* egin dira 3.1 atal honetan. Ondoren, kasu bakoitzean zehazten da eranskinen zein ataletan eskaintzen diren aldagai horren gurutzaketak eskolan neurtzen ditugun ikasleen lau erabilerekin: *ikaskideekin gelan, ikaskideekin jolaslekuan, irakasleekin gelan eta irakasleekin gelatik kanpo*. Lau erabilera horiez gain, informazio osagarri interesgarria eskaintzen dutelakoan, beste bi daturen gurutzaketa ere eskaintzen da eranskinetan, kasuan kasuko aldagaiaren arabera: *irakasleen arteko erabilera eta ikasleen erabilera etxean* (denak batera daudenean).


Gorago aipaturiko sei aldagaiez gain, eranskinetan beste bi aldagairen arabera gurutzaketak ere eskaintzen dira *lehen hizkuntza eta ISEK indizea* (ikus 7.2.5 eta 7.2.9 eranskinak). Azkenik esan, atal honetan datuak aldagai askeen arabera aztertzean, 2011-2017 bilakaera osoari erreparatu diogula nagusiki. Modu osagarrian, kasu batzuetan azken bi neurketen arteko bilakaerari ere jarri diogu arreta (2015etik 2017ra).

3.1.1.- Eremu soziolinguistikoaren arabera

24. GRAFIKOA: IKASLEEN ESKOLAKO ERABILERA OROKORRA (ERABILERA-TASA ESLEITUAK), EREMU SOZIOLINGUISTIKOAREN ARABERA. LH4KO IKASLEAK, EAE, 2011-2017



25. GRAFIKOA: IKASLEEN ESKOLAKO ERABILERA OROKORRA (ERABILERA-TASA ESLEITUAK), EREMU SOZIOLINGUISTIKOAREN ARABERA. DBH2KO IKASLEAK, EAE, 2011-2017



29. TAULA: IKASLEEN ESKOLAKO ERABILERA OROKORRA (ERABILERA-TASA ESLEITUAK) EREMU SOZIOLINGUISTIKOAREN ARABERA. LH4 ETA DBH2 MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2011-2017.

Eremu soziolinguistikoa	LH4				DBH2			
	2011	2013	2015	2017	2011	2013	2015	2017
%80-%100	88	88,5	91,6	91,4	91,2	87,9	92,2	92,3
%60-%79,9	84,8	84,4	86,5	84,6	79,2	78,5	80	76,9
%40-%59,9	61,6	61,8	63,4	63,3	44,4	45,7	47,1	42,9
%20-%39,9	46,3	51,1	50,5	49,5	27,3	30,6	30,7	30,5
%0-%19,9	39,8	47,5	47,9	45	21,6	27,1	26,8	26,5

Aurreko hiru neurketetan bezala, 2017ko datuetan ere, ikasleen eskolako erabilerak oso modu nabarmenean aldatzen dira *eremu soziolinguistikoaren* arabera, grafiko eta tauletan ikus daitekeenez. Orri honetan *eskolako erabilera orokorraren* datuak eskaintzen dira, eta ikasleen beste lau erabileren *eremu soziolinguistikoaren* arteko gurutzaketak, berriz, 7.2.4 eranskineko tauletan.

Bi ikasmailetak datuei batera erreparatuta, bada azpimarratzeko moduko lehen ideia bat, soziolinguistikoki garrantzitsua: bi ikasmailetak ikasleen euskarazko *erabilera orokorren* arteko aldeak txikitu egiten dira eremu euskaldunenetan, desagertzera iristeraino: %80-%100 eremuan, LH4 eta DBH2ko ikasleen erabilerak maila bertsuan kokatzen dira. Aldiz, %60-%79,9 eremuan 5-12 puntu arteko aldeak dituzte, eta euskaldunen proportzio txikiagoak dituzten beste hiru eremuetan handiagoak (12-25 puntu artekoak).


Ikasmaita bakoitzaren 2011-2017 arteko datuei dagokionez, nabarmenduko genuke, DBH2n, %40-59,9 eta %60-79,9 eremuetako ikasleen erabilerak bilakaera negatiboagoa izan dutela beste hiru eremuetakoek baino. Aipatu bi eremu horietan, hurrenez hurren, 1,5 eta 2,3 puntu egin du atzera ikasleen *erabilera orokorrak* (%44,4tik %42,9ra eta %79,2tik %76,9ra). Bi eremu horietako bilakaera negatibo hori, bestalde, azken neurketako datuaren ondorioz gertatu da (2015etik 2017ra izandako jaitsiera). Aldiz, aurreko hiru neurketetan ez da aipatu bi eremuetan bilakaera negatiborik izan.

Beste hiru eremu soziolinguistikoetan, bitartean, DBH2ko erabileraren bilakaerak positiboak izan dira 2011 eta 2017 artean: %0-19,9 eremuan, *erabilera orokorrak* 4,9 puntu egin du gora (%21,6tik %26,5era), %20-39,9 eremuan igoera 3,2 puntukoa izan da (%27,3tik %30,5era) eta eremurik euskaldunenean ere (%80-100) erabilerak apur bat gora egin du (1,1 puntu, %91,2tik %92,3ra).

LH4ko ikasleen artean ez da eremuen artean halako bereizketa argirik gertatu 2011-2017 artean. Eremu guztietan *erabilera orokorraren* bilakaera positiboa izan da, %60-79,9 eremuan izan ezik (azken honetan, maila berean geratu da). Eremu bakoitzaren datuei erreparatuta, bestalde, eremurik erdaldunenean gertatu dira bilakaerarik aipagarrienak (%0-19,9 eremua). 2011-2017 artean, eremu horretako ikasleen erabileran eman da bilakaerarik positiboena (5,2 puntuko igoera, %39,8tik %45,0ra). Era berean, baina, 2015etik 2017ra eremu berdinean eman da jaitsierarik handiena ikasleen *erabilera orokorrean* (2,9 puntuko jaitsiera, %47,9tik %45,0ra).

3.1.2.- Sexuaren arabera

26. GRAFIKOA: IKASLEEN ESKOLAKO ERABILERA OROKORRA (ERABILERA-TASA ESLEITUAK), IKASLEAREN SEXUAREN ARABERA. LH4 ETA DBH2 MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2011-2017



30. TAULA: IKASLEEN ESKOLAKO ERABILERA OROKORRA (ERABILERA-TASA ESLEITUAK) IKASLEAREN SEXUAREN ARABERA. LH4 ETA DBH2 MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2011-2017.

	LH4				DBH2			
Sexua	2011	2013	2015	2017	2011	2013	2015	2017
Neska	57,5	60,5	60,8	60,5	39,9	42,3	42,6	41,8
Mutila	55,4	57,6	58,1	56,7	39,8	41,2	42	39,6

Grafikoan eta taulan ikasleen *eskolako erabilera orokorrak* 2011tik 2017ra izan duen bilakaeraren datuak erakusten dira, ikasleen *sexuaren* arabera berezita. Eskolako beste erabilera guztien sexuaren araberako gurutzaketak 7.2.11 eranskinean daude jasota.

Bi ideia nabarmendu behar dira eskolako erabileren sexuaren araberako alderaketatik: lehen, neurtutako lau urteetan LH4n nesken *erabilera orokorra* altuagoa dela mutilena baino (2,1 eta 3,8 puntu artekoak dira aldeak). DBH2n, alde hori ez da hain nabarmena; 2017an eta 2013an, nesken erabilera altuagoa izan da (puntu 1 edo 2), baina beste bi neurketetan mutilenaren maila berean dago.


Nabarmenduko genukeen bigarren ideia, berriz, honakoa da: 2011tik 2017ra, nesken *erabilera orokorrak* mutilenak baino bilakaera pixka bat hobea izan du euskarazko erabileren aldetik, bai LH4n eta bai DBH2n. Lehenengo kasuan, esate baterako, nesken 2017ko datua 2011koa baino 3 puntu altuagoa izan da (%57,5etik %60,5era igo da) eta igoera hori 1,3 puntuko izan da mutilen artean (%55,4tik %56,7ra). DBH2n, nesken erabilerak 1,9 puntu egin du gora (%39,9tik %41,8ra) eta mutilena berriz maila berean geratu da (%39,8 eta %39,6).

Era berean, 2015etik 2017ra ikasle guztien artean bi ikasmailetan izan den atzerakada txikia, apalagoa izan da nesken artean mutilen artean baino. LH4n, nesken erabilera ez da ia aldatu (%60,8 eta %60,5) eta mutilen artean aldiz, 1,4 puntu jaitsi da (%58,1etik %56,7ra). DBH2n, nesken artean ez da ia aldaketarik izan (0,8 puntuko atzerakadaxoa, %42,6tik %41,8ra), eta mutilen artean, aldiz, 2,4 puntuko jaitsiera izan da (%42tik %39,6ra).

Neskek eta mutilek aitortutako eskola-giroko hizkuntza-erabileretan, dena den, bada ikerketa honetan sexuaren araberako datua zuhurtziaz irakurtzera deitzen duen daturik. Izan ere, *irakasleen arteko erabilerari* buruz galdetzen zaienean (teorian neskek zein mutilek berdintsu hauteman beharko luketen errealitatea), alde aipagarriak daude batzuen eta besteen erantzunen artean. Adibidez, 2017an, DBH2n neskek aitorturiko *irakasleen arteko erabilera* %71,3koa izan da, eta mutilek aitortua berriz, %67,5koa; LH4n ere antzeko aldea dago (%74,5 eta %71,8, hurrenez hurren) (ikus 68. taula aipatutako eranskinetako 7.2.11 atalean).

3.1.3.- Etxeko erabileraren arabera


27. GRAFIKOA: IKASLEEN ESKOLAKO ERABILERA OROKORRA (ERABILERA-TASA ESLEITUAK) ETXEKO ERABILERAREN ARABERA (DENAK BATERA DAUDENEAN). LH4 MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2011-2017 (%)



Ikasleen eskolako erabilerak nabarmen aldatzen dira etxean duten hizkuntza-erabileraren arabera bereizten ditugunean. Orri honetan *eskolako erabilera orokorraren* alderaketa eskaintzen da, eta gainerako guztiak eranskinetako 7.2.10 atalean. 2017an, esaterako, LH4n, etxean “euskaraz bakarrik” egiten duten ikasleen *eskolako erabilera orokorra* %88,2koa da, eta “gaztelaniaz bakarrik” egiten dutenena, berriz, ia 42 puntu baxuagoa (%46,4). DBH2n, alde hori are handiagoa da, 52 puntu pasatxokoa (%82,1 vs %29,6). Eginiko lau neurketetan (2011, 2013, 2015 eta 2017), bestalde, etxeko erabileren araberako alde horiek berdintsu mantendu dira bi ikasmailetan.

2011-2017 arteko bilakaerei erreparatuta, azpimarratzekoa da etxean euskaraz (soilik, edo gaztelaniarekin batera) aritzen diren ikasleen *eskolako erabilera orokorraren* bilakaerak nabarmen negatiboagoak izan direla etxean (nagusiki edo erabat) gaztelaniaz aritzen diren ikasleenak baino. DBH2ko ikasleen artean bereizketa hori nahiko nabarmena da. LH4koen artean aldiz, 2011-2017 bilakaeran bai gertatu da bereizketa hori, baina ez hala 2015-2017 urteen artean.

28. GRAFIKOA: IKASLEEN ESKOLAKO ERABILERA OROKORRA (ERABILERA-TASA ESLEITUAK) ETXEKO ERABILERAREN ARABERA (DENAK BATERA DAUDENEAN). DBH2 MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2011-2017 (%)



31. TAULA: IKASLEEN ESKOLAKO ERABILERA OROKORRA (ERABILERA-TASA ESLEITUAK) ETXEKO ERABILERAREN ARABERA (DENAK BATERA DAUDENEAN). LH4 ETA DBH2 MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2011-2017.

Etxeko erabilera	LH4				DBH2			
	2011	2013	2015	2017	2011	2013	2015	2017
Euskaraz bakarrik	88,3	88,0	89,1	88,2	86,1	85,2	85,9	82,1
Euskaraz gehiago	77,2	75,7	75,7	74,7	72,8	71,8	71,5	64,9
Bietan berdin	70,7	68,2	66,6	66,1	59,8	57,7	59,0	56,4
Gaztelaniaz gehiago	58,0	59,0	59,0	58,9	45,9	47,1	46,2	46,9
Gaztelaniaz bakarrik	45,1	47,8	48,1	46,4	25,6	28,9	29,7	29,6
Beste hizkuntza batez	43,6	46,1	48,9	49,0	20,1	22,1	28,0	25,8

Aurreko orriko grafikoetan eta taulan jasotako datuetan ikusten dugu, DBH2n, 2011 eta 2017 artean bilakaera negatiboa izan dutela etxean euskaraz (soilik edo gaztelaniarekin batera) aritzen diren hiru kategorietako ikasleek *eskolako erabilera orokorrean*. Bilakaerarik negatiboa etxean “euskaraz gehiago” aritzen diren ikasleen multzoak izan du, 7,9 puntuko galerarekin (%72,8tik %64,9ra), eta atzerakada izan dute etxean “euskaraz bakarrik” eta “bietan berdin” aritzen diren kategorietako ikasleek ere (hurrenez hurren, 4,0 eta 3,4 puntuko atzerakadak). Aldiz, etxean (nagusiki) gaztelaniaz (edo “beste hizkuntza batez”) aritzen diren ikasleen *erabilera orokorrean* bilakaera positiboa izan dute aipaturiko epean: “gaztelaniaz bakarrik” aritzen diren ikasleen erabilerak 4,0 puntu egin du gora (%25,6tik %29,6ra), “gaztelaniaz gehiago” aritzen direnenak puntu 1, eta “beste hizkuntza batez” aritzen direnenak, berriz, 5,7.


DBH2n jarraituz, 2015etik 2017rako bilakaerari erreparatzeko badiogu ere, datuek antzeko bereizketa erakusten dute: etxean “euskaraz bakarrik” egiten dutenen *eskolako erabilera orokorrak* 3,8 puntu egin du behera (%85,9tik %82,1era), eta etxean “gaztelaniaz bakarrik” egiten duten ikasleena, berriz, maila bertsuan mantendu da (%29,7 2015ean, eta 2017an %29,6).

Etxeko erabileraren arabera DBH2ko ikasleen *eskolako erabilera orokorrean* gertatzen den bereizketa hori LH4ko ikasleen artean ere gertatzen da, baina kategorien arteko aldeak pixka bat txikiagoak dira, eta bereizketa 2011-2017 bilakaeran soilik ematen da (2015-2017 bilakaeran, aldiz, ez). 2011tik 2017rako bilakaeran, LH4n *erabilera orokorrean* bilakaera negatiboa izan dute etxean “bietan berdin” eta “euskaraz gehiago” aritzen diren ikasleek: hurrenez hurren, lehenengoei 4,6 puntuko atzerakada dute (%70,7tik %66,1era) eta bigarrenek 2,5 puntuko (%77,2tik %74,7ra). Urte horien artean, aldiz, etxean “gaztelaniaz bakarrik” aritzen diren ikasleen *erabilera orokorrak* 1,3 puntu egin du gora. DBH2n ez bezala, ordea, etxerik euskaldunenetako LH4ko ikasleen *erabilera orokorrak* ez du atzera egin 2011-2017 artean (etxean “euskaraz bakarrik” aritzen diren ikasleen erabilera maila berean mantendu da, 2011n %88,3 eta 2017an %88,2).


2015-2017 urteen arteko bilakaerari erreparatuta ere, bestalde, LH4n ez da DBH2ko bereizketa errepikatzen. LH4n 2015etik 2017ra 0,9 puntuko jaitsieratxo izan du etxean “euskaraz bakarrik” aritzen diren ikasleen *erabilera orokorrak* (% 89,1etik %88,2ra) eta 1,7 puntu egin du behera etxean “gaztelaniaz bakarrik” aritzen direnenak (%48,1etik %46,4ra); alde nabarmenik ez, beraz.

3.1.4.- Ikasleen eta euren gurasoen jatorria

29. GRAFIKOA: IKASLEEN ESKOLAKO ERABILERA OROKORRA (ERABILERA-TASA ESLEITUAK), JATORRIAREN ARABERA. LH4 MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2011-2017 (%)



30. GRAFIKOA: IKASLEEN ESKOLAKO ERABILERA OROKORRA (ERABILERA-TASA ESLEITUAK), JATORRIAREN ARABERA. DBH2 MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2011-2017 (%)



32. TAULA: IKASLEEN ERABILERA IKASKIDEKIN GELAN (ERABILERA-TASA ESLEITUAK) JATORRIAREN ARABERA. LH4 ETA DBH2 MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2011-2017.

Jatorria	LH4				DBH2			
	2011	2013	2015	2017	2011	2013	2015	2017
Bi gurasoak eta ikaslea bertan jaioak	61,3	63,3	63,8	62,5	47,3	48,5	48,1	45,7
Gurasoetako bat kanpoan jaioa; ikaslea bertan jaioa	51	54	53,9	53,6	34,3	36,4	37,3	34,7
Gurasoak kanpoan jaioak; ikaslea bertan jaioa	44,3	47,5	50,1	50,1	25,3	29,1	29,4	29,6
Guraso bat edo biak bertan jaioa(k); ikaslea kanpoan jaioa	49,4	53,8	53,3	52	32,1	35	35,2	33,8
Gurasoak eta ikaslea kanpoan jaioak	39	43,9	44,6	42,3	14,6	19,4	23,3	22
Beste egoerak eta informazio hutsuneak	51,7	55	56,1	56	36,8	36,8	36,1	32,3


Atal honetan ikasleen *eskolako erabilera orokorraren* 2011-2017 datuak *jatorriaren arabera* bereizita eskaintzen dira; eskolako gainerako erabilerekiko gurutzaketa-taulak, berriz, eranskinetako 7.2.12 atalean. Bi grafikoetan eta taulako datuetan ikus daitekeenez *jatorria* aldagaiaren sei kategorietako ikasle-multzoen artean, badira aldeak *erabilera orokorrean*, baina ez dira soziolinguistikoki pisu handiagoa duten beste aldagai batzuen kasuan bezain handiak (esate baterako, *eremu soziolinguistikoa* ikus, gorago, 3.1.1).

2011tik 2017rako bilakaera datuei dagokionez, bi ikasmailetan “bi gurasoak eta ikaslea bertan jaioak” kategoriako ikasleen *erabilera orokorrak* beste kategorietako ikasleenak baino gutxiago egin duela gora (LH4), edo apur bat behera egin du (DBH2).

LH4n, aipatu kategoriako ikasleen *erabilera orokorra* 1,2 puntu handitu da sei urte horietan (%61,3tik %62,5era), eta aldiz, igoera handiagoa izan du beste kategorietako ikasleenak (“gurasoak eta ikaslea kanpoan jaioak” multzoko ikasleenak, esaterako, 3,3 puntukoa, %39,0tik %42,3ra). Berdintsu gertatzen da DBH2n: “bi gurasoak eta ikaslea bertan jaioak” kategoriako ikasleen *erabilera orokorra* da 2011-2017 artean bilakaerarik negatiboa izan duen bakarra (“informazio hutsuneak” kategoriako ikasleak alde batera utzita): 1,6 puntu egin du behera, %47,3tik %45,7ra. Aldiz, epe berean, “gurasoak eta ikaslea kanpoan jaioak” kategoriakoen erabilera 7,4 puntuko igoera izan du (%14,6tik %22,0ra).

3.1.5.- Ikastetxeko ISEK indizearen arabera²

31. GRAFIKOA: IKASLEEN ESKOLAKO ERABILERA OROKORRA (ERABILERA-TASA ESLEKTUAK) IKASTETXEAREN ISEK MAILAREN ARABERA. LH4 ETA DBH2 MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2011-2017 (%)



33. TAULA: IKASLEEN ESKOLAKO ERABILERA OROKORRA (ERABILERA-TASA ESLEITUAK) IKASTETXEAREN ISEK MAILAREN ARABERA. LH4 ETA DBH2 MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2011-2017.

	LH4				DBH2			
Ikastetxearen ISEK maila	2011	2013	2015	2017	2011	2013	2015	2017
Maila baxua	40,7	48,8	46,8	46,2	23,4	26,9	27,2	29,2
Maila ertain-baxua	60,7	60,2	62,9	64,1	47,8	47,3	49,4	48,9
Maila ertain-altua	65,5	68,8	68,2	65,8	48,9	52,0	53,4	46,1
Maila altua	52,7	55,2	55,7	54,4	35,9	37,1	35,9	36,9

Alderaketa honetan, ikasleen *erabilera orokorraren* datuak ikasleen *ikastetxeko ISEK* indizearen arabera antolatuta eskaintzen dira. Aztertu diren gainerako eskolako erabilerekiko gurutzaketak eranskinetako 7.2.8 atalean kontsulta litezke.

Bi ikasmailetan, ikusten dugu badela nolabaiteko lotura *ikastetxeko ISEK* indizearen eta *eskolako erabilera orokorraren* artean, eta, ikasmaila batean zein bestean, maila “ertaineko” ISEK indizeetan ematen direla eskolako euskarazko erabilerarik altuenak (“maila ertain-baxua” eta “maila ertain-altua”). Ondoren datoz “maila altuko” ISEKdun ikasleenak, eta erabilerarik apalenak “maila baxuko” kategoriakoek dituzte.


2011 eta 2017 urteen arteko bilakaerari dagokionez, aipatzekoa da, bi ikasmailetan, bilakaera positiboagoa izan duela “maila ertain-baxuko” ikasleen *erabilera orokorrak*, “maila ertain-altuko”enak baino. LH4n, lehen multzoko ikasleen erabilerak 3,4 puntu egin du gora (%60,7tik %64,1era), eta aldiz, bigarren multzokoenak 0,3 soilik (%65,5etik %65,8ra). Antzera gertatu da DBH2n ere: “maila ertain-baxuko”en *erabilera orokorrak* sei urtean 1,1 puntu egin du gora (%47,8tik %48,9ra), eta “ertain-altukoak”, berriz, 2,8 behera (%48,9tik %46,1era).

Aipatzekoa da, halaber, aztertutako 2011-2017 epean, “maila baxuko” ISEKa duten ikasleen *eskolako erabilera orokorra* dela bilakaerarik positiboena izan duena: 5,5 puntu gora LH4n eta 5,8 DBH2n. Pentsa izatekoa da, bestalde, kategoria honetako igoerek, neurri batean, irakastereduen euskalduntzearekin lotura izan dezaketela (ikus gorago, 1.3.1 atala).

² ISEK indizea ISEI-IVEIk sortu eta analisisetarako baliatzen duen indize bat da, ikasleen familien maila sozioekonomikoa eta kulturala neurtzen duena. Alderaketa honetan ikastetxearen ISEK aldagaia eskaini da, zeina bere ikastetxeko ikasleen ISEK datuen batez bestekotik ateratzen den (ikaslearen ISEK mailaren arabera eranskinetan kontsulta litezke). ISEK indizeari buruzko xehetasun gehiagorako, ikus: http://www.isei-ivei.hezkuntza.net/c/document_library/get_file?uuid=c1213185-61d1-48ef-a36d-b3956d805805&groupId=635622

3.1.6.- Ikastetxearen titularitatea

32. GRAFIKOA: IKASLEEN ESKOLAKO ERABILERA OROKORRA (ERABILERA-TASA ESLEKTUAK) IKASTETXEAREN TITULARITATEAREN ARABERA. LH4 ETA DBH2 MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2011-2017 (%)




34. TAULA: IKASLEEN ESKOLAKO ERABILERA OROKORRA IKASTETXEAREN TITULARITATEAREN ARABERA (ERABILERA-TASA ESLEITUAK). LH4 ETA DBH2 MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2011-2017.

Ikastetxearen titularitatea	LH4				DBH2			
	2011	2013	2015	2017	2011	2013	2015	2017
Publikoa	60,8	63	63,3	62	44,1	46,8	46,7	44,3
Itunpekoa	51,8	54,9	55,4	54,9	36,3	37,4	38,4	37,5

35. TAULA: IKASLEEN ESKOLAKO ERABILERA OROKORRA IKASTETXEAREN TITULARITATEAREN ARABERA (ERABILERA-TASA ESLEITUAK). LH4 ETA DBH2 MAILAKO IKASLEAK, EAEKO D EREDUKO IKASLEAK, 2011-2017.

Ikastetxearen titularitatea	LH4				DBH2			
	2011	2013	2015	2017	2011	2013	2015	2017
D Publikoa	67,7	67,6	67,1	65	51,7	53,5	51,6	47,8
D Itunpekoa	75,5	76,2	76,3	73,9	61,9	61,8	61,3	57,4

33. GRAFIKOA: IKASLEEN ESKOLAKO ERABILERA OROKORRA (ERABILERA-TASA ESLEKTUAK) IKASTETXEAREN TITULARITATEAREN ARABERA. LH4 ETA DBH2 MAILAKO IKASLEAK, EAEKO D IRAKASTEREDUKO IKASLEAK, 2011-2017 (%)



Ikasleen eskolako erabilerak ikastetxearen *titularitatearen* arabera aztertzeko bi alderaketa eskaintzen dira hemen, biak ere ikasleen *eskolako erabilera orokorrarenak*: ikasle guztiena lehenik (32. grafikoa eta 34. taula), eta ondoren D irakastereduko ikasleena soilik (33. grafikoa eta 35. taula). *Titularitatea* aldagaiaren arabera eskolako beste erabileren gurutzaketa-etaulak, berriz, eranskinetako 7.2.7 atalean eskaintzen dira.

Titularitatearen arabera alderatuta, altuagoak dira, batez beste, ikastetxe “publiko”etako ikasleen *erabilera orokorrak*, “itunpeko”enak baino. Nolanahi ere, kontuan hartu behar da bi sare horietan irakastereduen banaketan eta bilakaeran badirela kontuan hartzeko moduko aldeak (ikus datuak gorago, 1.3.1 atalean).

Hala, irakastereduaren aldagaia neutralizatzen dugunean (kasu honetan, D irakastereduko ikasleak soilik hartuz), ikusten dugu, batez beste, altuagoak direla itunpeko sareko ikasleen *erabilera orokorrak*, sare publikoko ikasleenak baino.


2011 eta 2017 artean *erabilera orokorrean* sare bateko eta besteko ikasleen erabilerek izandako bilakaerei dagokionean, nabarmentzekoa da, oro har, positiboagoa izan dela itunpeko ikastetxeetako bilakaera publikoetakoa baino. Aldeak, nolanahi ere, ez dira oso handiak. LH4n, aipaturiko bi urteen artean, itunpeko sareko ikasleen *erabilera orokorrak* 3,1 puntu egin du gora (%51,8tik %54,9ra), eta sare publikoan dabilzan ikasleenak 1,2 (%60,8tik eta %62,0ra). DBH2n ere itunpeko sareko bilakaera positiboagoa izan da, baina alde txikiarekin (itunpekoan 1,2 puntu egin du gora, %36,3tik %37,5era, eta publikoan maila berean mantendu da; 2011an %44,1 eta 2017an %44,3).

2011-2017 aldiari irakastereduaren parametroa neutralizatuta erreparatzen diogunean (D ereduko ikasleen datuak soilik hartuz), azpimarratzekoa da itunpeko sareko ikasleen erabilerak publikokoak baino altuagoak direla egindako lau neurraldietan, eta aldeak nabarmenak direla (ikus 35. taula). LH4n zein DBH2n, itunpeko D ereduko *erabilera orokorrak* batez beste sare publikoko D eredukoenak baino 8-10 puntu altuagoak dira. Kontuan hartzeko moduko aldeak, inondik ere. Nolanahi ere, D ereduko ikasleen erabilerek antzeko bilakaera izan dute sare batean eta bestean 2011-2017 artean, eta kasu guztietan negatiboak izan dira bilakaera horiek. LH4n, sare publikoan 2,7 puntu egin du behera *erabilera orokorrak* sei urte horietan (%67,7tik %65,0ra) eta itunpeko sarean 1,6 (%75,5etik %73,9ra). DBH2n, sare publikoan jaitsiera 3,9 puntukoa izan da (%51,7tik %47,8ra) eta itunpeko sarean ere antzekoa, 4,5 puntukoa zehazki (%61,9tik %57,4ra).

Ikasleen *erabilera orokorrak* izan ditugu aipagai atal honetan. Jarraian ordea, une batez, ikasleek *irakasleekin gelatik kanpo* duten hizkuntza-erabilerari erreparatuko diogu. Izan ere, erabilera hori da LH4n 2011-2017 artean bilakaera negatiboa izan duen bakarra, eta beraz, merezi du *titularitatea* aldagaiaren arabera nolako datuak dituen aztertzea. Ikasle guztiak aintzat hartuta, *irakasleekin gelatik kanpo* erabilerak bilakaera ezberdina izan du sare publikoan eta itunpekoan: lehenengoan 5,3 puntuko jaitsiera izan du (%74,3tik %69,0ra; ikus datuak 7.2.7 eranskinean), itunpeko sarean, aldiz, 1,4 puntuko igoera (%61,9tik %63,3ra). Ikasle guztien datuak hartu ordez, alderaketa hori egiten dugunean D ereduko ikasleen artean soilik, ikusten dugu erabilera horren bilakaera (2011-2017) bi sareetan izan dela negatiboa: sare publikoan 10,1 puntuko jaitsiera izan du (%82,2tik %72,1era) eta itunpeko sarean berriz 3,9 puntukoa (%84,1etik %80,2ra ikus datuak 7.2.20 eranskinean).

3.2.- IKASLE GUZTIAK ETA IRAKASTEREDU BAKOITZEKOAK (A, B, D)

34. GRAFIKOA: IKASLEEN ESKOLAKO ERABILERA OROKORRA (ERABILERA-TASA ESLEITUAK) IKASLE GUZTIAK ETA IRAKASTEREDUAREN ARABERA. LH4 ETA DBH2 MAILETAKO IKASLEAK, EAE, 2011-2017 (%)



36. TAULA: IKASLEEN ESKOLAKO ERABILERA OROKORRA (ERABILERA-TASA ESLEITUAK) IKASLE GUZTIAK ETA IRAKASTEREDUAREN ARABERA. LH4 ETA DBH2 MAILETAKO IKASLEAK, EAE, 2011-2017 (%)

	LH4				DBH2			
Hizkuntza-eredua	2011	2013	2015	2017	2011	2013	2015	2017
A eredia	7,5	11,4	8,6	8,5	3,4	4,2	4,6	4,4
B eredia	37,7	39,9	38,0	36,6	23,6	24,0	23,0	21,9
D eredia	70,4	70,7	70,4	68,2	55,6	56,6	55,2	51,5
Ikasle guztiak	56,4	59	59,4	58,5	39,9	41,7	42,3	40,7

A, B eta D irakastereduetako ikasleen eskolako euskarazko erabilerak, batez beste, oso maila ezberdinetan kokatzen dira, eta haien arteko aldeak berdintsu mantendu dira 2011tik 2017ra eginiko neurketetan, *eskolako erabilera orokorraren* datuetan ikus daitekeen moduan. 2017an, D irakastereduko ikasleen erabilera B irakasteredukoena baino 31,6 puntu altuagoa da LH4n (%68,2 vs %36,6) eta DBH2n 29,6 puntu (%51,5 vs %21,9). A irakasteredukoak, era berean, B ereduaren oso azpitik kokatzen dira: 2017an, LH4n 28,1 puntu beherago (%36,6 vs %8,5) eta DBH2n 17,5 (%21,9 vs %4,4).

2011tik 2017ra izandako bilakaerari dagokionez, batez beste, D eta B irakastereduetan bilakaera negatiboak izan dira, bi ikasmailetan, eta A ereduaren berriz, igoera apalak.

D irakastereduan, DBH2n izan da atzerakadarik nabarmenena, 4,1 puntukoa; LH4n, aldiz, jaitsiera hori 2,2 puntukoa izan da. Nabarmenezkoa da, dena den, bi ikasmailetan atzerakada hori 2015etik 2017ra gertatu dela, lehenengo hiru neurketetan (2011, 2013 eta 2015), bi kasuetan erabilerak ia maila berean (DBH2) edo oso antzekoan (LH4) egon ondoren.

B irakastereduan ere, DBH2n atzerakada 2015etik 2017ra gertatu da, guztira 2011-2017eko jaitsiera 1,7 puntukoa izanik. LH4n, 1,1 puntuko jaitsiera izan da 2011tik 2017ra bitartean, baina tarteko urteetan datuek gora eta behera egin dute.

A irakastereduan, azkenik 1,0 puntuko igoera izan da 2011-2017 epean, ikasmila batean zein bestean.


Kontuan hartzen badugu irakasteredu bakoitzean biltzen den ikasleen proportzioa, hasiera batean pentsa liteke erabileraren bilakaera kontraesankorra dela, ikasleen gehiengo oso nabarmen bat D ereduaren eta B ereduaren arituta, eta 2011tik 2017ra bi eredu horietan *eskolako erabilera orokorraren* bilakaera negatiboa izanik, aldiz, ikasle guztien kasuan, aipatu erabilera horren bilakaera positiboa izatea (ikus 30. taulako datuak). Itxurazko kontraesan horren azalpena urte hauetan irakasteredu batzuetatik besteetara ikasle kopuru garrantzitsu batean gertatu den aldaketan dago (ikus gorago datuak 1.3.1. puntuan).

Alderatzen ari garen bi urte horien artean (2011 eta 2017) D irakastereduan ikasten ari diren ikasleen proportzioak hazkunde argia izan du bi ikasmailetan (LH4n 9,5 puntu igo da, eta DBH2n 7,8); eta aldiz, beste bi ereduetako ikasleen proportzioek behera egin dute. Hortaz, ikasleen *eskolako erabilera orokorraren* bilakaeraren alderaketa egiten ari gara, baina bi urteetan ikasleriaren oinarri ezberdinak erabiliz, haren zati baten mugimendua eman baita urte horien artean erabilera baxuagoko ereduetatik altuena duenera.

Hala, 2011ean A eta B irakastereduetan erabilera baxu edo ertainak zituen ikasleriaren proportzio bat 2017an erabilerarik altuena duen D ereduaren multzoan egotera pasa da, eta horrek ikasle guztien bilakaera ere positiboa izatea dakar. Aldiberean, ordea, D ereduko datuen baitan jaitziera bat ematen da, baina bere ikasleriaren hazkundearekin, ikasleria osoan eredu honek hartzen duen pisuak orekatu eta gainditu egiten du ereduaren barne-galera. 2011an eta 2017an, beraz, ez dira berdinak hiru irakastereduen proportzioak, eta horregatik ez datoz bat irakasteredu bakoitzaren erabileraren bilakaerak eta ikasleria osoarena, modu horretan itxurazko kontraesan bat sortuz. Hitzetatik irudietara paseaz, 34. grafikoak ere laguntzen du gertatzen ari den bilakaera horren ideia nagusia ulertzen.

3.2.1.- Eskolako erabileren bilakaera D ereduan (2011-2017)

35. GRAFIKOA: IKASLEEN ESKOLAKO LAU ERABILERA SOILEN ETA ERABILERA OROKORRAREN BILAKAERA 2011-2017 (ERABILERA-TASA ESLEITUAK). IKASLE GUZTIAK ETA D IRAKASTEREDUKOAK SOILIK. LH4KO ETA DBH2 MAILETAKO IKASLEAK, EAE, 2011-2017 (%)



37. TAULA: IKASLEEN ESKOLAKO LAU ERABILERA SOILEN ETA ERABILERA OROKORRAREN BILAKAERA 2011-2017 (%) (ERABILERA-TASA ESLEITUAK). IKASLE GUZTIAK ETA D IRAKASTEREDUKOAK SOILIK. LH4 MAILETAKO IKASLEAK, EAE, 2011-17.


	LH4			
	2011	2013	2015	2017
Ikaskideekin gelan				
Ikasle guztiak	64,2	66,2	68,2	66,5
D ereduko ikasleak	79,0	79,5	80,9	77,5
Ikaskideekin jolaslekuan				
Ikasle guztiak	36,9	40,2	40,9	40,9
D ereduko ikasleak	50,8	52,4	52,4	50,9
Irakasleekin gelan				
Ikasle guztiak	76,7	80,0	79,9	78,2
D ereduko ikasleak	89,4	89,3	88,8	86,1
Irakasleekin gelaz kanpo				
Ikasle guztiak	68,2	68,9	66,8	66,2
D ereduko ikasleak	82,8	79,8	76,6	75,0
Eskolako erabilera orokorra [tr]				
Ikasle guztiak	56,4	59,0	59,4	58,5
D ereduko ikasleak	70,4	70,8	70,4	68,2

Gorago ikusi dugun bezala (2. atala), LH4n, ikasle guztiak aintzat hartuta, 2011tik 2017ra bilakaerarik negatiboena *irakasleekin gelatik kanpo* erabileran eman da, 2,0 puntuko atzerakada izanik. Berdin gertatzen da D irakastereduko ikasleen artean, baina modu nabarmenagoan: jaitsiera handiagoa izan da (7,8 puntukoa) eta lehenago hasi zen (ikasle guztien artean 2015ean, eta D eredukoaren artean 2013an).

Ikaskideekin gelan eta *irakasleekin gelan* erabilerei dagokionean, ikasle guztien artean 2011-2017 bilakaera positiboa izan da (hurrenez hurren, 2,3 eta 1,7 puntuko igoerak). Aldiz, D irakastereduko ikasleen batez bestekoan jaitsierak izan dira: 1,5 eta 3,3 puntu, hurrenez hurren. *Ikaskideekin jolaslekuan* ikasleek duten erabilerari dagokionez ere, bi multzoen bilakaeren artean aldea agerikoa da: ikasle guztien artean, 2011tik 2017ra 4,0 puntuko igoera izan da, eta aldiz, D ereduan, datuek gora eta behera egin dute sei urtean zehar, baina aipatu bi urte horietako batez besteko erabilera maila berean geratu da (%50,8 eta %50,9).

Ikasle guztien eta D irakasteredukoaren datuak alderatzen ditugunean, ez da ahaztu behar D ereduko ikasleria honek sei urtean aldaketa garrantzitsua izan duela (ikus gorago, 1.3.1 puntua), eta pentsa izatekoa da, eredu honetara biltzen ari diren ikasle gehienek eskolako euskarazko erabilerarako baldintza soziolinguistiko mugatuagoak edo zailagoak izango dituztela, aurretik irakasteredu horretan ari ziren beste ikasle askok baino.

36. GRAFIKOA: IKASLEEN ESKOLAKO LAU ERABILEREN ETA ERABILERA OROKORRAREN BILAKAERA 2011-2017 (ERABILERA-TASA ESLEITUAK). IKASLE GUZTIAK ETA D IRAKASTEREDUKOAK SOILIK. DBH2 MAILAKO IKASLEAK, EAE (%).



38. TAULA: IKASLEEN ESKOLAKO LAU ERABILEREN ETA ERABILERA OROKORRAREN BILAKAERA 2011-2017 (%) (ERABILERA-TASA ESLEITUAK). IKASLE GUZTIAK ETA D EREDUKOAK SOILIK. DBH2 MAILAKO IKASLEAK, EAE.

	DBH2			
	2011	2013	2015	2017
Ikaskideekin gelan				
Ikasle guztiak	36,1	37,5	38,3	37,3
D ereduko ikasleak	52,3	52,8	52,0	48,6
Ikaskideekin jolaslekuan				
Ikasle guztiak	23,7	23,8	23,6	21,8
D ereduko ikasleak	36,5	35,9	34,3	30,4
Irakasleekin gelan				
Ikasle guztiak	64,5	68,7	70,0	67,9
D ereduko ikasleak	82,1	85,5	83,9	80,4
Irakasleekin gelaz kanpo				
Ikasle guztiak	56,4	60,3	61,9	60,3
D ereduko ikasleak	76,5	79,7	78,3	74,5
Eskolako erabilera orokorra [tr]				
Ikasle guztiak	39,9	41,7	42,3	40,7
D ereduko ikasleak	55,6	56,6	55,6	51,5

LH4n gertatzen den moduan, DBH2ko ikasmailan ere, 2011tik 2017ra D irakastereduan euskarazko erabileren bilakaerak negatiboagoak izan dira ikasle guztien artean baino. Ikasleria osoarentzat, neurtutako lau erabileretatik bakarrean izan da 2017ko datua 2011koa baino baxuagoa (*ikaskideekin jolaslekuan* erabileran). Aldiz, D ereduko ikasleen erabileren kasuan, aztertutako lau datuetan izan da atzerakada.

D ereduko ikasleekin jarraituz, aipatzekoa da jaitsierak handiagoak izan direla ikaskideen arteko erabileretan, irakasleekin izaten dituztenetan baino. *Ikaskideekin jolaslekuan* 6,1 puntuko jaitsiera izan da, atzerakada nagusia 2015etik 2017ra gertatu delarik. *Ikaskideekin gelan* 3,7 puntukoa izan da jaitsiera, kasu honetan ere horren zatirik handiena 2015etik 2017ra gertatu delarik.

Irakasleekiko harremanetan ere bi ikasle-multzo hauen euskarazko erabileren 2011-2017 bilakaerak ezberdinak izan dira. Ikasle guztien artean, goranzko joera argia izan da bi kasuetan (*irakasleekin gelan* 3,4 puntu gora eta *irakasleekin gelatik kanpo* 3,9); aldiz, D ereduko ikasleen batez besteko irakasleekiko erabilerak atzerakada izan dute: *gelan* 1,7 puntu (%82,1etik %80,4ra) eta *gelatik kanpo* 2,0 puntu (%76,5etik %74,5era). Aipatzekoa da, dena den, bi erabilera hauetan D ereduan datuek gora egin zutela 2011tik 2013ra, baina ondoren, bi kasuetan jaitsierak neurtu dira.

4.- ONDORIOAK ETA HAUSNARKETAK

4.1.- Ikerketaren emaitza eta ondorio nagusiak

4.1.1.- Ikasleen hizkuntza-erabilerak baldintza ditzaketen ezaugarriak

Badira hainbat ezaugarri ikasleen eskola-giroko hizkuntza-erabilerak erraztu edo zaildu ditzaketenak. Lan honetan hiru esparrutan banatzen ditugu ezaugarri horiek: familiakoak, eskolakoak eta sozialak, eta jarraian nabarmentzen dira horietatik aipagarrienak.

Ikasle gehienek etxeko giroan, gaztelania nagusi

Familia esparrutik hasita, eskolako hizkuntza-erabilerak irakurtzeko garaian alde batera utzi ezin den datu bat etxeko errealitatearen abiapuntua da. 2017ko azken datuen arabera, batez beste, LH4ko ikasleen *etxeko erabileraren* %29 da euskaraz, eta DBH2ko ikasleen kasuan, %21. Horrek esan nahi du, bi ikasmailetakoa ikaslerik gehienek gaztelaniaz egiten dutela nagusiki euren etxeetan.

Euskara etxean jasotzen duten ikasleen proportzioa, pixkanaka gorantz (LH4n)

2017ko datuekin berretsi egiten da 2011-2015 datuen analisian goranzko joera baten “lehen zantzu” gisa aipatutakoa: LH4ko ikasleen artean goranzko joera da etxean *lehen hizkuntza* gisa euskara, bakarrik edo gaztelaniarekin batera, jasotzen duten ikasleen proportzioa. 2011tik 2017ra proportzio horrek 5,3 puntu egin du gora, %38,8ra iritsiz. Igoera hori bat dator ikasmaila horretako ikasleen artean *etxeko erabileran* ematen ari den igoerarekin. Epe berean, 4,1 puntu egin du gora erabilera horrek (%24,9tik %29ra).

DBH2ko ikasleen artean, aldiz, ez da halako bilakaerarik gertatzen ari. 2011tik 2017ra igoera txiki bat gertatu da *lehen hizkuntza* gisa “euskara eta gaztelania” jasotzen duten ikasleen proportzioan (1,3 puntukoa), baina “euskara” soilik jaso dutenen ehunekoak maila berean jarraitzen du, eta aipatutako epean ez da aldaketarik izan ikasle hauen *etxeko erabileraren* proportzioan (2017an %21 izan da, eta 2011ean 21,7 zen).

D irakastereduko ikasleen proportzioa gero eta handiagoa bi ikasmailetan

Eskolako esparruko ezaugarriei helduz, gertatzen ari den aldaketarik garrantzitsuenetako bat D irakastereduen urteroko hazkundea da. LH4n zein DBH2n gero eta handiagoa da eredu horretan ikasten duten ikasleen proportzioa, eta aldiz, txikitzen ari da bai A ereduko eta bai B eredukoena. 2017an, ikasleen %73,5 ari da ikasten D ereduan LH4n, eta DBH2n proportzio hori %66,6koa da. Gogoan izan behar da hiru irakastereduetatik ikasleen euskarazko erabilerarako baldintzarik aldekoenak sortzen dituen eredu dela.

A, B eta D irakastereduen banaketan alde handiak daude ikastetxeen sare publikoaren eta itunpekoaren artean, baina bi sareetan ari da hazten D ereduko ikasleen proportzioa (eta beste biak txikitzen).

Irakasleen arteko euskararen erabileran hazkunderik ez LH4n

Ikasleek hauteman eta aitortzen duten *irakasleen arteko* hizkuntza-erabileraren bilakaera ezberdina izan da LH4n eta DBH2n 2011 eta 2017 artean. Bigarrenen kasuan, aipatutako epean euskarazko erabileraren proportzioak 4,3 puntuko igoera izan du, eta beraz, esan genezake joera moduan bat datorrela D irakastereduaren hazkundearekin. Aldiz, LH4n, irakasleen arteko euskarazko erabilera hori ez da handitzen ari D ereduaren hedatzearen neurrian, eta aipatutako epean apur bat behera ere egin du (1,2 puntu).

Azpitarratzekoa da, bestalde, *irakasleen arteko* hizkuntza-erabilerak eta ikasleen *irakasleekin gelatik kanpokoak* oso bilakaera antzekoa izan dutela 2011-2017 artean, bi ikasmailetan. LH4n –hurrenez hurren– 1,2 eta 2 puntu arteko jaitsierak izan dituzte, eta DBH2n 4,3 eta 4 puntuko igoerak. Antzeko bilakaera horiek, irakasleen arteko erabilerak ikasleena norabide batean edo bestean baldintzatzeko izan dezakeen garrantzia iradokitzen digu.

Ikasleen euskarazko hizkuntza-kompetentzia beheranzko joera

Eskola esparruko ezaugarriekin jarraituz, nabarmentzekoa da Ebaluazio Diagnostikoa probetan neurtzen diren hizkuntza-kompetentzietan euskarazkoek duten beheranzko joera, bai LH4n eta bai DBH2n. 2011tik 2017ra urterik urte hazten ari da euskaraz “hasiera maila” gainditzen ez duten ikasleen proportzioa, eta 2017an %37,8koa izatera iritsi da LH4n, eta %46,4koa DBH2n. Aldiz, gutxitzen ari da euskaraz “maila aurreratu” lortzen duten ikasleen proportzioa. Gaztelaniaz zein ingelesez, ordea, ikasleek lortzen dituzten kompetentzietan ez da halako beheranzko bilakaerarik gertatzen ari.

Ingelesaren gorakada eskolaz kanpoko jardueratan

Esparru sozial zabalagoari dagokionez, nabarmentzekoa da eskolaz kanpoko jardueren eremuan ingelesez egindakoak hartzen ari diren bulkada, batez ere DBH2ko ikasleen artean. Ikasmila horretan, 2017an, astero eskolaz kanpoko jardueretan zenbait ordu ingelesez egiten dituzten ikasleen proportzioa nabarmen altuagoa da euskaraz halako jardueretan orduren bat ematen dutenena baino (20 bat puntu altuagoa).

4.1.2.- Ikasleen eskolako hizkuntza-erabilerak 2011-2017

2017koarekin, laugarren aldiz aztertu dira Arrue Ikerketaren baitan ikasleen eskola-giroko hizkuntza-erabilerak (aurreko neurketak 2011, 2013 eta 2015ean egin dira). Atal honetan biltzen dira laugarren neurketa honen datu eta ideia nagusiak.

Ikasleen eskolako hizkuntza-erabileren datu eta bilakaera orokorrak (2011-2017)

Ikasleen eskolako hizkuntza-erabileren lehen ikuspegi orokor bat ondorengo taulan laburtzen da. Ikasmila bakoitzean neurtu diren lau hizkuntza-erabileren eta *erabilera orokorraren* 2017ko batez besteko datua jasotzen da batetik (tasa esleitu), eta ondoko zutabeen zehazten da zenbat puntu egin duen erabilera bakoitzak gora edo behera sei urte lehenago 2011ean neurtutakotik (itzal berdez igoerak; itzal laranja jaitzierak, eta itzalik gabe maila berean direnak).

	LMH4		DBH2	
	2017 (%) (tasa esleitura)	Bilakaera 2011tik 2017ra	2017 (%) (tasa esleitura)	Bilakaera 2011tik 2017ra
Ikaskideekin gelan	66,5	+ 2,3 puntu	37,3	+ 1,2 puntu
Ikaskideekin jolaslekuan	40,9	+ 4 p.	21,8	- 1,9 p.
Irakasleekin gelan	78,2	+ 1,5 p.	67,9	+ 3,4 p.
Irakasleekin gelaz kanpo	66,2	- 2 p.	60,3	+ 3,9 p.
Eskolako erabilera orokorra	58,5	+ 2,1 p.	40,7	+ 0,8 p.

Datu orokor horiek kontuan harturik, lehen ondorioa da 2017ko ikasleen hizkuntza-erabilerak neurri handi batean aurreko hiru neurketen banaketa berdintsua erakusten dutela, eta 2011tik 2017ra eginiko neurketetan, bost erabilera horien batez besteko datu orokorretan gehieneko alde 4 puntukoa izan dela.

Bigarren ondorio gisa nabarmenduko genuke ikasleen *eskolako erabilera orokorrak* igoera xumea izan duela 2017an. 2011n neurtutakoarekin alderatuta, LH4n goranzko joeran da bilakaera hori (2,1 puntu egin du gora sei urtean), eta DBH2n berriz, bi urte horietako erabilerak ia maila berean daude (0,8 puntu altuagoa azken neurketakoa).

Aztertutako ikasleen (*erabilera orokorraz* aparte) lau hizkuntza-erabileren 2011tik 2017rako bilakaerei dagokionez, gehienak positiboak izan dira bi ikasmailetan. LH4n, bilakaera positiboagoa izan dute ikaskideen arteko harremanak neurtzen duten bi erabilerek: *ikaskideekin gelan* erabilerak 2,3 puntu egin du gora epe horretan, eta *ikaskideekin jolaslekuan* erabilerak, berriz, 4 puntu. Aldiz, DBH2n bilakaerarik positiboena ikasleen eta irakasleen arteko harremanari dagozkion bi erabilerek izan dute: *irakasleekin gelan* erabileran 3,4 puntuko igoera izan da, eta *irakasleekin gelaz kanpo* 3,9 puntukoa.

Sei urte horietan bilakaera negatiboa izan duten euskarazko erabilerak, berriz, bi izan dira, ikasmaila bakoitzean bat: LH4n, *irakasleekin gelaz kanpo* erabilerak 2 puntu egin du behera 2011tik 2017ra, eta DBH2n *ikasleekin jolaslekuan* erabilerak 1,9.

Hizkuntza-erabileren bilakaera 2015 eta 2017 artean

2011tik 2017ra eginiko lau neurketetan, ikasleen hizkuntza-erabilera bakoitzean LH4ko eta DBH2ko datu orokorretan izan dira gora-behera txikiak, baina gorago esan bezala, joera nagusiak egonkortasuna eta igoera izan dira. Hori hala da sei urteko ikuspegian jartzen badugu; baina alderatzen baditugu azken bi neurketen datuak (2015 eta 2017), ohartzen gara azken neurketako datuek ez dietela neurri berean jarraipena ematen orain arteko joera nagusiei. Hala, ondorengo taulan ikus daitekeen moduan, 2017an neurturiko erabilera ia guztiak 2015ekoak baino baxuagoak dira. Datuak aurreko taulan bezala antolatu dira oraingoan ere, baina kasu honetan 2015-2017 alderaketa eginaz.

	LMH4		DBH2	
	2017 (%) (tasa esleitura)	Bilakaera 2015etik 2017ra	2017 (%) (tasa esleitura)	Bilakaera 2015etik 2017ra
Ikaskideekin gelan	66,5	- 1,7 puntu	37,3	- 1 puntu
Ikaskideekin jolaslekuan	40,9	0,0 p.	21,8	- 1,8 p.
Irakasleekin gelan	78,2	- 1,7 p.	67,9	- 2,1 p.
Irakasleekin gelaz kanpo	66,2	- 0,6 p.	60,3	- 1,6 p.
Eskolako erabilera orokorra	58,5	- 0,9 p.	40,7	- 1,6 p.

Datozen urteetako neurketetan baieztatu edo ezeztatu beharko den arren, 2017eko datuek aurreko hiru neurketekiko erakusten duten joera aldaketa orokorra da (neurtutako lau erabileretan) eta bi ikasmaileri eragiten die, nabarmenago DBH2koari.

LH4n, 2015etik 2017ra *ikaskideekin gelan* eta *irakasleekin gelan* erabilerek 1,7 puntu egin dute atzera, eta beste bi erabilerak (*ikaskideekin jolaslekuan* eta *irakasleekin gelaz kanpo*) maila bertsuan mantendu dira. Ondorioz, 2017ko *erabilera orokorra* bi urte lehenagokoa baino 0,9 puntu baxuago geratu da. DBH2n jaitziera handiagoa izan da eta neurtutako lau erabilerak egin dute behera, neurri handiagoan edo txikiagoan, 2015etik 2017ra (puntu 1 eta 2,1 puntu artean). Ondorioz, 2017ko *erabilera orokorra* 2015ekoa baino 1,6 puntu baxuagoa da.

Ikasleen hizkuntza-erabileren bilakaerak D irakastereduan (2011-2017)

Ikasleen EAEko eskola-giroko hizkuntza-erabileren azterketan garrantzia berezia du D irakastereduen baitan gertatzen denak, hiru arrazoigatik nagusiki. Batetik, irakasteredu horrek B ereduak eta A ereduak baino baldintza askoz egokiagoak eskaintzen dizkie ikasleei eskolan euskara erabili dezaten. Bestetik, eredu horretan biltzen da EAEko ikasleen proportziorik handiena aztertutako bi ikasmailetan. Eta hirugarrenik, urtetik urtera biltzen dituen ikasleen proportzioa handitzen ari da.

D irakastereduko ikasleak soilik	LMH4		DBH2	
	2017 (%) (tasa esleitura)	Bilakaera 2011tik 2017ra	2017 (%) (tasa esleitura)	Bilakaera 2011tik 2017ra
Ikaskideekin gelan	77,5	- 1,5 puntu	48,6	- 3,7 puntu
Ikaskideekin jolaslekuan	50,9	+ 0,1 p.	30,4	- 6,1 p.
Irakasleekin gelan	86,1	- 3,3 p.	80,4	- 1,7 p.
Irakasleekin gelaz kanpo	75,0	- 7,8 p.	74,5	- 2 p.
Eskolako erabilera orokorra	68,2	- 2,2 p.	51,5	- 4,1 p.

Aurreko taulan argi ikusten denez, LH4ko eta DBH2ko ikasle guztiak hartu beharrean, D ereduaren ikasten ari diren ikasleen datuak soilik alderatzen baditugu, ikasleen lau erabileretan eta bi ikasmailetan 2017ko datuak baxuagoak dira 2011n baino (LHko *ikaskideen jolaslekuan* erabileraren salbuespenarekin). Ondorioz, D ereduko ikasleen artean epe horretan LH4n *erabilera orokorrak* 2,2 puntu egin du behera, eta DBH2n 4,1. Goiko taulak erakusten dituen jaitsierak ez dira gradualki gertatu 2011tik 2017ra, nagusiki 2015etik 2017ra baizik.

Ustezko kontraesan baten azalpena

Ikusi berri ditugu D irakastereduko ikasleen hizkuntza-erabileren bilakaera-datuak. B irakastereduko ikasleen artean ere, 2017ko *erabilera orokorraren* batez besteko datua 2011koa baino baxuagoa izan da bi ikasmailetan (LH4n 1,1 puntu egin du behera, eta DBH2n 1,7). Kontuan hartzen badugu EAEko ikasleen erabateko gehiengoak D eta B ereduetan ikasten duela (2017an, biak batuta, LH4ko ikasleen %95,5 eta DBH2koen %92 biltzen dute), nola uler daiteke bi irakasteredu horietako bakoitzean *erabilera orokorraren* bilakaera 2011tik 2017ra negatiboa izanik, EAEko ikasleria osoarena positiboa izatea? (gorago ikusi dugunez, epe horretan LH4n 2,1 puntu egin du gora, eta 0,8 DBH2n). Itxurazko kontraesan horren erantzuna urte horietan gertatu den D ereduaren hazkundean dago: 2011tik 2017ra, eredu horretan ari den ikasleriaren proportzioa ia 10 puntu hazi da LH4n, eta 7,8 puntu DBH2n.

Hala, 2011tik 2017ra, A eta B irakastereduetan neurtu diren ikasleen proportzioak behera egin du. Eta eredu horietan, batez beste, euskarazko hizkuntza-erabilerak baxuagoak dira D ereduaren baino. Aldiz, gora egin du D ereduaren pisuak, non hizkuntza-erabilerarik altuenak neurtzen diren. Horregatik, nahiz eta D irakastereduaren baitan euskarazko erabileraren jaitsiera bat gertatu den (nagusiki 2015etik 2017ra), ikasleria osoaren erabilerak gora egin du, D ereduak irabazi duen pisu erlatiboari esker.

Ikasleen hizkuntza-erabileraren luzetarako azterketa (2011-2015 eta 2013-2017)

2017ko datuekin, bigarren aldiz egin ahal izan da Arrue Ikerketaren baitan ikasleen hizkuntza-erabileren *luzetarako* azterketa (halako lehen azterketa 2011-2015 ikasle-multzoarekin egin zen).

2013-2017 bigarren ikasle-multzo honen datuak 2011-2015 multzoko ikasleen datuekin alderatzen ditugunean, ondorioa argia da: 2013an LH4n zen ikasleriak DBH2ra iristean (2017) eskolako erabileretan izan duen atzerakada, 2011ko ikasleek tarte berean izan zutena baino handiagoa izan da: 2011-15 ikasle-multzoak 14,1 puntuko *diferentzia* izan zuen ikasleen LH4ko datuetatik DBH2koetara (*eskolako erabilera orokorra*). 2013-17 ikasle-multzoan, berriz, *diferentzia* hori 18,3 puntukoa izan da; hau da, lehen ikasle-multzoan baino 4,2 puntu handiagoa.

2013an LH4n ziren ikasleek, abiapuntu altuagoa zuten eskolako euskarazko erabileretan 2011koek baino. Abiapuntu altuago hori, ordea, ez da islatu ikasle-multzo horren DBH2ko datuetan. Alderantziz, DBH2ko 2017ko erabilerak 2015ekoen azpitik geratu dira, 2013-2017 ikasleen *diferentzia* handiago eginaz.

Luzetarako bi azterketa horien datuak ikasleen *etxeko erabileraren* arabera aztertuta, aipatzekoa da, *luzetarako* lehen azterketatik (2011-2015) bigarrenera (2013-2017), proportzioan, *diferentzia* gehiago handitu dela etxean (nagusiki) euskaraz aritzen diren ikasleen artean, (nagusiki) gaztelaniaz aritzen direnen artean baino.

4.1.3.- Eskolako hizkuntza-erabilerak aldagaien arabera alderatuta

Gorago 4.1.2 atalean deskribatu ditugun ikasleen hizkuntza-erabilerak sei aldagai askeren arabera aztertu dira lan honetan: *eremu soziolinguistikoa, sexua, etxeko erabilerak, jatorria, ISEK indizea* eta *ikastetxearen titularitatea*.

Eremu soziolinguistikoaren arabera, DBH2n bereizketa nahiko argia gertatu da 2011-2017ko hizkuntza-erabileren bilakaeran. Euskaldunen proportzioa %40 eta 80 artean duten udalerrien eremuetan, ikasleen *erabilerak orokorrak* pixka bat behera egin du (1,5 eta 2,3 puntu artean) eta aldiz, beste hiru eremu soziolinguistikoetan (%0-20, %20-40 eta %80-100) gora (1,1 eta 4,9 puntu artean). LH4ko ikasleen artean ez da eremuen artean halako bereizketa argirik gertatu 2011-2017 artean.

Ikasleak haien *etxeko erabileraren* arabera berezita, DBH2ko ikasleen artean gertatu da beste bereizketa aipagarri bat: 2011 eta 2017 artean ikasleen *erabilerak orokorraren* bilakaera negatiboa izan dute etxean euskaraz (soilik edo gaztelaniarekin batera) aritzen diren hiru kategorietako ikasleek (3,4 eta 7,9 puntu arteko jaitzierak). Aldiz, etxean (nagusiki) gaztelaniaz (edo “beste hizkuntza batez”) aritzen diren ikasleek bilakaera positiboa izan dute (1 eta 5,7 puntu arteko igoerak).

Ikasleak *sexuaren* arabera berezita, aipatzekoa da LH4n nesken batez besteko *erabilerak orokorra* altuagoa izan dela mutilena baino egindako lau neurketetan (2-3 puntu altuago). DBH2n ere hala gertatu da, baina lau neurketatik bitan (beste bietan ez). Bestalde, 2011-2017 artean, aipatu erabileraren bilakaera, positiboagoa izan da nesken artean mutilen artean baino, bi ikasmailetan.

4.2.- Eraitzen irakurketa soziolinguistikoa

Eskolak ikasleen euskarazko erabilerarako sortzen duen eremua eta haren mugak

2017an eta aurretik Arrueko beste neurketetan aztertutako ikasleen hizkuntza-erabilerari buruzko datuetan argi ikusten da eskolak, eremu gisa eta batez beste, lortzen duela ikasleek beste ohiko gizarte-esparrutan dituztenak baino euskarazko erabilerak altuagoak izatea. Batez ere zenbait adinetan, eta eskola-jardueraren zenbait egoeratan. Jakinaenez, eta oro har, ikasleen euskarazko erabilerak altuagoak dira irakasleekiko harremanean ikaskideen artean baino, altuagoak dira gelako esparru formalean jolaslekuko eremu aske(ago)an baino, eta altuagoak dira lehen hezkuntzako ikasleen artean (gure kasuan, LH4) bigarren hezkuntzakoaren artean baino (gure kasuan, DBH2).

Eskolak esparru gisa ikasleen euskarazko hizkuntza-erabileran egiten duen ekarpena edo gehikuntza baloratzeko, ikasleen abiapuntuzko erabileraren erreferentzia gisa har genezake haien *etxeko erabilerak*. 2017an, esate baterako, LH4ko ikasleen artean %29koa da euskarazko erabilerak horren batez bestekoa. Eskolara etorrira, ikasmaila berean, gela barruan, eta irakasleekin, euskarazko erabilerak horren batez bestekoa %78,2koa izan da urte berean. 49,2 puntu altuagoa. Aldiz, eskolaren baitako beste egoera batean, LH4ko ikasle horiek *ikaskideekin jolaslekuan* duten erabilerak %40,9koa da. Etxeko batez bestekotik askoz hurbilago dago eskolako bigarren erabilerak-datu hori, baina hala ere, ia 11 puntu “gehitzen” dizkio (euskararen erabileraren aldetik) etxeko abiapuntuari, nolabait esan.

DBH2ko datuak hartuta, etxeko “abiapuntua” %21ekoa izan da 2017an, batez beste. Eskolan, gela barruan, eta irakasleekin hitz egitean, erabilerak horren batez besteko datua %67,9koa da. Kasu honetan ere, “eskola-eremua”k euskarazko erabileraren aldetik eragiten duen “gehikuntza” sekulakoa da: 46,9 puntu. DBH2ko ikasleen *ikaskideekin jolaslekuan* erabileraren 2017ko datua, aldiz, %21,8koa da. Etxeko “erabilerak-abiapuntutik” oso hurbil, beraz.

Ikasleen eskolako hizkuntza-erabilera datuen irakurketaren lehen ideia gisa, beraz, esan genezake eskolak, esparru gisa, gaitasuna duela gaur egun EAEn gizarteko batez bestekoa baino nabarmen euskaldunagoa den esparru bat eratzeko. Esparru horren baitako euskarazko erabilera batzuk, egoera eta adin batzuetan, gizarteko orokorraren oso gainetik daude. Eskolaren gaitasun horren mugak ere, dena den, agerikoak dira: 14 urte ingurukoen (eta beraz, pentsa liteke, hortik gorakoen) jolaslekuko ikaskide arteko erabilera askean, ikasleen hizkuntza-erabilerak asko hurbiltzen dira etxeko abiapuntura.

Ikasleen hizkuntza-erabilerak eta hizkuntzak erabiltzeko gizarte-arauak

Laburtuz, ikasleek eskola-giroan dituzten euskarazko erabilera altuago horiek estuki loturik agertzen zaizkigu abiapuntuzko bi baldintzari: eremu formala eta botere- edo autoritate-harremana. Hala, euskarazko erabilera nagusi den eremu formal batek, gelak kasu honetan, ikasleek hizkuntza hori erabil dezaten errazten du, izan irakasleekiko harremanean edo izan ikasleen artekoan. Lehen baldintza horri bigarren bat eranstean zaio: botere edo autoritate baten presentzia (irakaslegoarena), aipatu hizkuntza horren erabilera lehenesten duena, eta bere ereduarekin (gizarte araua) modu inplizituan ikaslegoa gonbidatzen duena jokaera-molde horrekin bat egitera. Bi baldintza horiek eragina dute –beste askorekin batera– ikasleen hizkuntza-sozializazio prozesuan, eta lotura estua dute irakastereduarekin; nahiz eta, azken honek ez dituen halako baldintzak beti modu berean sortzen.

Bestalde, ikasle gazteagoek eta helduagoek eskolako testuinguruan dituzten hizkuntza-erabilerak ikusirik, maiz egiten da halako irakurketa orokor bat: *“ikasleak zenbat eta helduagoak, orduan eta txikiagoa haien euskarazko erabilera”*. Arruen aztergai ditugun ikasleen hizkuntza-erabileren datuek aukera ematen digute irakurketa hori osatzeko edo fintzeko. Bistan da, bai 2017an, eta bai aurretik egin ditugun beste hiru neurketetan, DBH2ko ikasleen (13-14 urte) eskolako euskarazko erabilerak txikiagoak direla LH4koenak baino (9-10 urte). Hizkuntza-sozializazioaren ikuspegiaren eskutik, diferentzia horri buruz egiten dugun irakurketa horrela laburtuko genuke: *ikasleak haur izatetik gazte izatera pasatzen doazen neurrian, haien eskolako hizkuntza-erabilera estuago lotzen zaio haien hurbileko ingurune sozialean ohikoa den hizkuntza-erabilerari eta hizkuntzak erabiltzeko gizarte-arau inplizituei*. Hala, lehen hezkuntzako ikasle gazteagoekin, eskolak gaitasun handiagoa du –milaka profesionalen ahaleginari esker, bide batez esanda– gizartekoa baino euskaldunagoa den errealtate bat sortzeko modu eraginkorrean, eta horrek isla du ikasleen euskarazko erabilera altuagoetan. Aldiz, ikasleak euren sozializazioan aurrera egin ahala, esango genuke gizartearen eragina indar handiagoz sartzen dela eskolako ingurunean eta baita ikasleen hizkuntza-erabileretan ere. Ondorioz, eta EAEn gaur egun kasurik gehienetan gizarte-ingurunea eskolakoa baino (askoz) erdaldunagoa denez, ikasle helduagoen euskarazko erabilera, oro har, baxuagoa izaten da gazteagoena baino.

Azpitarratu nahi dugun ideiarenean adibide garbia ematen digu, esate baterako, ikasleen hizkuntza-erabilerak *eremu soziolinguistikoaren* arabera alderatzeak. Eremurik euskaldunenean (%80-100), LH4ko ikasleen erabilera orokorra %91,4 izan da 2017an, eta DBH2koa %92,3. Hau da, eskolaz kanpoko ingurunea (oso) euskalduna denean, ikasle helduagoen euskarazko erabilerak ez dira gatzetxoak baino baxuagoak. Hizkuntza-sozializazioaren ikuspegiarekin jarraituz, eta Arrueko lanetan lehen ere aipatu izan dugun ideia bat gogora ekarri esango genuke, bi ikasmailetako ikasleen arteko euskarazko hizkuntza-erabileren arteko *diferentziak* handia(goa)k direla euskara ahul dagoen egoeratan, edo euskararen aldeko gizarte egoera indartsurik ez dutenetan.

Hizkuntza gutxituaren sustapena... eta hizkuntza nagusien pisua

Lan honen atal batean jasotzen dira ikasleek Ebaluazio Diagnostikoa proban euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez lortzen dituzten hizkuntza-kompetentzien datuak eta haien bilakaerak. Hizkuntza bakoitzean banaka ikasleek lortzen dituzten kompetentzien osagarri, soziolinguistikoki ikuspegi interesgarria eskaintzen digu kompetentziak modu “konbinatuan” aztertzeak. Ikasleen euskarazko hizkuntza-erabileren datuak eta bilakaerak aztertzen ditugunean ere, komeni da oso present izatea, gero eta ikasle gehiagok “euskaraz ikasten” duten arren (D irakastereduan), hizkuntza nagusiak –gaztelania, eta neurri apalagoan ingelesa– egunero, bide ezberdin askotatik eta indar handiz daudela presente ikasleen eguneroko bizitzan. Aipamen berezia merezi du horretan ikasleen eskolaz kanpoko jardueren artean ingelesezkoak hartzen ari diren presentziak, bereziki DBH2n.

4.3.- Hausnarketak eta aurrera begirako galderak

Lan honetan aztertutako ikasleen hizkuntza-erabilera datu batzuk, eta haien bilakaerak, komenigarri egiten dute, gure ustez, D irakastereduaren inguruko zenbait hausnarketa mahai gainean jartzea. Besteak beste, sozialki urte urte nagusitzen ari den eredu horretan “euskaraz murgiltze” egoki bat eskaini ahal izateko gaur egun –eta datozen urteetan– egon litezkeen premia, aukera eta bestelakoei begira.

D irakastereduan ikasten duten ikasleen 2011-2017 arteko hizkuntza-erabileren bilakaerak aditzera ematen du, zailtasunak daudela gaur egun D ereduak bere baitan biltzen duen aniztasun gero eta zabalago horretan, batez beste, ikasleen euskarazko erabilerei orain arteko mailan eusteko edo hortik gora egiteko.

Maiz aipatu izan da, gizarte ikuspegi batetik, belaunaldi berrien euskalduntzea neurri handiegian utzi izan dela “eskolaren esku”. Ideia hori gaur egungo D ereduaren errealitatera ekarrita, behar bada errazegi pentsatzen da “D ereduari ari direnez” izango dituztela ikasleek euskaraz aritzeko baldintza egokiak, gehiegi begiratu gabe nolako baliabideak eta aukera errealek dauden D ereduari ari diren hainbat ikastetxetan, ikasleentzat (nagusiki) euskaraz ariko den eskola-ingurune bat eskaintzeko.

Badaude arrazoiak pentsatzeko hainbat eremu eta ikastetxetan, irakasle eta arduradunentzat, D ereduaren baitan ikasleei euskarazko ingurune eraginkor bat eskaintzea (gero eta?) zailago suertatzen ari dela azken urteetan. Eta beraz, zabaltzea komeni den hausnarketa bat da nolako osagarriak, indartzeak edo baliabide berriak behar diren zailtasun horiek orekatzeko.

Deigarri egiten da, zentzu horretan, D ereduaren baitan LH4n ikasleek *irakasleekin gelaz kanpo* dituzten harremanetan euskarazko erabileran izandako jaitsiera (2011-2017). Aztertzea da, zentzu horretan, aldaketak gertatu ote diren urtetan D ereduari irakasle gisa ari diren profesionalen hizkuntza-erabileretan, edo zein neurritan irakasle belaunaldi berrien inkorporazioaren harira ari ote diren gertatzen halako aldaketak. Kasua bat izan zein bestea, komenigarri izan litezke gorago aipaturiko honi begirako indartzeak edo baliabide berriak.

D irakastereduaren gaitik arreta hezkuntza-sistema osora eta gizartera zabalduz, Arrueko analisietan ikusi izan dugu nola DBH2ko hizkuntza-erabilerak lotura estatistikoki indartsuagoa duten LH4koekin baino, oro har, gizarteko hizkuntza-erabilerekin. Eta Arruen aztergai ditugun lau hizkuntza-erabileretatik *ikaskideekin jolaslekuan* erabilera da gizarteko edo kaleko errealitate horretatik “hurbilen” egoten dena. Alde horretatik, 2011etik 2017ra DBH2ko *ikaskideekin jolaslekuan* erabileran jaitsiera bat gertatzeak, eskola-munduari begira baino, gehiago zabaltzen ditu behar bada galderak, gizarteko erabilera orokorrari begira. Hala, eskolatik gizarteari begira jarrita, pentsatzekoa da ea aipatutako erabilera horren jaitsiera gizarte mailako euskararen erabileren “erlaxazio” edo ez-aurrerapen baten zantzu izan ote litekeen.

Bukatzeko, interesgarria da aztertzea aurrera begira ea ingelesezko jardueren ugartzeak, eta bere gizarte-prestigioaren handitzeak nolako eragina duen ikasleen hizkuntza-erabileretan; eskolan bertan, eta hortik kanpo. Hainbat esperientziak erakusten duten moduan, ingelesezko jardunaren gehitzeak ez du zertan (beti) izan euskarazko erabileren kaltetan. Hain justu, halako osagarritasunak bilatzea izango da datozen urteetarako beste esparru interesgarrietako bat.

5.- XEHETASUN METODOLOGIKOAK

5.1.- EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA: HAINBAT XEHETASUN

Txosten honetan aurkezten diren datuak Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) ISEIk bideratzen duen Ebaluazio Diagnostikoa probaren barnean jaso dira. Ebaluazio Diagnostikoa, Lehen Mailako Hezkuntzako 4. mailako (LH4) eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailako (DBH2) ikasleen hainbat gaitasun neurtzen dira proba batzuen bidez: Euskarazko hizkuntza-konpetentzia, Gaztelaniazko hizkuntza-konpetentzia, matematikarako konpetentzia, eta abar. Proba hau bi urtetik behin egiten da eta txosten honetan 2011, 2013, 2015 eta 2017an egindako Ebaluazio diagnostikoen emaitzak jasotzen dira, horien bilakaera aztertuz. Ebaluazio Diagnostikoari buruzko informazio zehatza, bai metodologiari buruzkoa eta baita emaitzak ere, txosten exekutibo honetan kontsulta daiteke sarean: *Ebaluazio Diagnostikoa 2017. Txosten exekutiboa oinarritzko hezkuntzaren egoerari buruz (LHko 4. maila – DBHko 2. maila)*³.

Hainbat alorretan ikasleek duten gaitasuna neurtzeaz gain, Ebaluazio Diagnostikoa ikasleen eta euren familien hainbat ezaugarri ere biltzen dira galdera sorta baten bidez (ikus Arrue Ikerketarako baliatzen diren galdetegiak eranskinetako 8.1 atalean), tartean hizkuntzen ezagutzari, erabilerei buruzko alderdiak. 2011. urtean paperean eta aplikazio informatiko bitartez erantzun zieten ikasleek galdera horiei. 2013, 2015 eta 2017. urteetan, berriz, aplikazio informatiko bidez egin dute.

5.2.- IKERKETA-UNIBERTSOA

Ebaluazio Diagnostikoa ez da lagin batera mugatzen, eta bere helburua izan ohi da bi ikasmila horietan, Lehen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, unibertso osora iristea, ikastetxe eta ikastalde guztietara, bere helburu nagusia hezkuntza hobetzeko balio dezakeen informazioa bildu eta ikastetxeei eskaintzea baita. 2017ko proban, aurreko aldietan bezala, diru publikoarekin finantzatutako ikastetxeetan (publiko eta hitzartu) eskolatutako LH4. mailako eta DBH2. mailako ikasle guztiek osatu dute ikerketa-unibertsoa. Egun ia haur guztiak eskolatuta daudela jakinik, maila horiei dagozkien adin-multzoetako EAeko haur guztietara zabaltzen da unibertsoa.

Ahalegin handia egin da probak ikasmila horietan eskolatutako ikasle guztiek egin zitzaten bermatzeko, beren egoera edo ezaugarri pertsonala edozein izanda ere. Gure kasuan, ikasle gehien-gehienek bete zuten galdera sorta, eta egun horretan arrazoia edozein izanda ere eskolara joan ez ziren haur eta nerabeak albo batera utzita, gainerako ikasle guztien datuak ditugu esku artean. Zehazki, 2017an:

- LH4ko 21.338 ikasleetatik, 19.343ren datuak ditugu aztergai, beraz, horiek unibertso osoaren %90,7 osatzen dute.
- DBH2ko 21.436 ikasleetatik, 19.180en datuak eskuratu ditugu (unibertso osoaren %89,5).

³ http://www.isei-ivei.hezkuntza.net/web/guest/detalle-informe-ed?p_p_id=KAIOAContenido_WAR_w24mContenidoWAR&p_p_lifecycle=1&p_p_state=normal&_KAIOAContenido_WAR_w24mContenidoWAR_idArticulo=1639440&_KAIOAContenido_WAR_w24mContenidoWAR_idPlantilla=INFORME_DETALLE

Hona hemen 2011, 2013, 2015 eta 2017. urteetako datuak elkarren ondoan jarrita:

39. TAULA: UNIBERTSO TEORIKOA ETA UNIBERTSO ERREALA. LH4. MAILAKO ETA DBH2. MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2011-17

LH4	Ikastetxe kopurua	Talde kopurua	Ikasle kopurua		Erreala / Teorikoa (%)
			Unibertso teorikoa (ikasle guztiak)	Unibertso erreala (Galdera-sortari erantzun diotenak)	
2011	522	986	19.254	18.636	96,8
2013	522	937	20.683	19.114	92,4
2015	517	971	21.167	19.823	93,7
2017	526	988	21.338	19.343	90,7

DBH2	Ikastetxe kopurua	Talde kopurua	Ikasle kopurua		Erreala / Teorikoa (%)
			Unibertso teorikoa (ikasle guztiak)	Unibertso erreala (Galdera-sortari erantzun diotenak)	
2011	329	731	18.279	17.184	94,0
2013	324	750	19.241	17.121	89,0
2015	326	835	20.221	19.095	94,4
2017	327	838	21.436	19.180	89,5

Ikusten denez, ikasle-kopuru oso handia dugu (unibertso osoaren %90 inguru ikasmila bakoitzean) gaia xehe eta sakon aztertzeko.

Neurriz unibertso erreala oso egokia izanagatik, jakin nahi izan dugu horren osaera orekatua ote den ikasleen zenbait alor kontuan hartuta. Zehazki, gure ikerketa (euskararen erabilera eskola-giroan) izan dezakeen eraginagatik, arreta bereziz aztertu dugu unibertso errealeko ikasleen eta unibertsoko banaketa bat datorren ikasten duten irakastereak aintzat hartuta.

Horretarako, unibertso teorikoan eta unibertso errealean ditugun datuak aztertu ditugu irakastereduka (ikus hurrengo taula).

40. TAULA: UNIBERTSO TEORIKOA ETA UNIBERTSO ERREALA IRAKASTEREDUKA. LH4 ETA DBH2 MAILETAKO IKASLEAK, EAE, 2011-17

	Unibertso teorikoa	Unibertso erreala	Erantzun-tasa (%)
LH4 2011			
A eredua	1.469	1.386	94,3
B eredua	5.563	5.314	95,5
D eredua	12.222	11.936	97,7
Guztira	19.254	18.636	96,8
LH4 2013			
A eredua	1.289	1.133	87,9
B eredua	5.499	5.089	92,5
D eredua	13.895	12.892	92,8
Guztira	20.683	19.114	92,4
LH4 2015			
A eredua	1.094	1.010	92,3
B eredua	5.150	4.816	93,5
D eredua	14.923	13.997	93,8
Guztira	21.167	19.823	93,7
LH4 2017			
A eredua	950	860	90,5
B eredua	4.700	4.294	91,4
D eredua	15.688	14.189	90,4
Guztira	21.338	19.343	90,7
DBH2 2011			
A eredua	2.622	2.272	86,7
B eredua	5.134	4.801	93,5
D eredua	10.523	10.111	96,1
Guztira	18.279	17.184	94,0
DBH2 2013			
A eredua	2.389	1.904	79,7
B eredua	5.329	4.765	89,4
D eredua	11.523	10.542	90,7
Guztira	19.241	17.121	89,0
DBH2 2015			
A eredua	1.839	1.727	93,9
B eredua	5.359	5.065	94,5
D eredua	13.023	12.303	94,5
Guztira	20.221	19.095	94,4
DBH2 2017			
A eredua	1.720	1.415	82,3
B eredua	5.445	4.782	87,8
D eredua	14.271	12.983	91,0
Guztira	21.436	19.180	89,5

Taula horretako datuak aztertuta, ikus dezakegu irakasteredu guztietako ikasleen presentzia handia dela gure unibertso errealean. Hala ere, kasu batzuetan bada alboraketa bat, eta unibertso teorikoarekiko unibertso errealean proportzioa txikiagoa da A ereduan, B ereduan eta, batez ere, D ereduan baino (alboraketa horren arrazoia izan liteke, behar bada, ereduaren artean dagoen eskola absentismo edo hutsegite maila ezberdina). B eta, batez ere, D eredu euskaldunen aldeko alboraketa hori aztertutako bi ikasmailetan kasu batzuetan gertatzen da,

LH4n baino nabarmenago DBH2an (2017an, esaterako, A ereduiko ikasleen proportzioa unibertso errealean, ikasle guztien batezbestekoa baino 7,2 puntu baxuagoa da, eta D eredukoena, aldiz, 1,5 puntu altuagoa).

Halako alboraketek zenbateraino eragingo zuten txosten honetan aurkeztera goazen emaitzetan? 2013an horrela genioen: *“Laginaren desoreka hori orekatzeko probak egin ditugu ikasleen erantzunak euren irakastereduaren arabera haztatuz, eta ondorioa honako hau da: gure datuek erakutsiko duten baino pisu apur bat txikiagoa du euskarak ikasleen egunerokotasunean, baina alde oso txikia da, puntu erdi ingurukoa (-%0,5) erabilera-tasa esleitueta”*

Horretaz gain, lau urteen arteko alderaketak egiterakoan (2011, 2013, 2015 eta 2017 urteen artekoak), kontuan hartu behar da alboraketa horiek ez direla areagotu; aitzitik, 2017ko unibertso erreala pixka bat orekatuagoa da beste urteetan baino LH4n, eta DBH2n alboraketa 2011ean eta 2013an baino txikiagoa da. Ondorioz, txosten honetan aurkeztuko ditugun bilakaera-joerak sendoak dira eta pentsa daiteke, unibertso errealean osaeran izandako aldaketa txikiak aintzat hartuta, bilakaera datuek unibertso horretan erakusten dutena baino pixkatxo bat negatiboagoa izango zela unibertso teorikoaren errealtatean, baina alde oso txikiekin (-%0,2 inguruko alde). Laburtuz, hala ere, hauxe da ideia azpimarragarria: unibertso errealean antzematen diren alboraketa txikiek ez diete funtsean datuei eragiten.

5.2.1.- Aldagai aske batzuk lagin adierazgarri bidez

Ebaluazio Diagnostikoa proban ikasleei egiten zaien galderen kopurua arindu nahian, 2015ean lehen aldiz egin zen moduan, 2017an ere, azterketa honetan baliatu diren aldagai aske batzuei buruzko informazioa ez da inkesta bete duten ikasle guztien galdetegietatik jaso, ikasleen heren batek osaturiko laginaren bitartez baizik. Lagin hori modu erabat adierazgarrian hautatu da, ikasgela bakoitzean ausaz ikasleen heren bat hautatuz. Modu horretan unibertso osoaren azterketarako erabat baliagarria den lagina lortu da, bai kopuruz eta bai ikastetxe eta ikasgela guztien errealtatea jasotze aldetik. 6.3 ataleko ondorengo tauletan zehazten da zein diren halako lagin bidez jasotako aldagaiak (gainerako kasuan unibertso errealeko guztien datuak dira aztertutakoak).

5.3.- 2011, 2013, 2015 ETA 2017KO DATU BASE BATERATUAN DAUDEN ALDAGAIK ETA ITURRIA

Lan honetan, lau urte eta bi ikasmila ezberdinetako datuak ustiatu ditugu. Horretarako, lehenik, datu baseak bateratu ditugu ISEI-IVEIko lankideen laguntzaz, eta hori egin ahal izateko lanaren edizio bakoitzean erabilitako inkestak eta itemak aztertu. Horrela, lan honetara ekarri ditugu lau edizio horietan bateragarriak ziren datuak. Dena dela, aldagaiaren interesagatik, batzuetan edizioren batean datua izan gabe ere beste urteetako edo urte bakarreko datuak jaso ditugu.

Ondoko tauletan ikus daiteke zeintzuk diren aldagai horiek, eta zein edizioetan jaso diren. Aldagai bati buruzko informazioa urte horretan jaso denean “✓” ikur batekin adierazi da, eta jaso ez denean berriz “✗” ikurrarekin. Horrez gain, gorago adierazi berri dugun moduan, 2015 eta 2017. urteetan, zenbait aldagai askeren informazioa ez da ikasleen unibertso osoarentzat jaso, ikasleen heren baten lagin adierazgarri baten bitartez baizik. Halako kasuetan, tauletan “✓ [lagina]” adierazten da dagokion gelaxkan. Azkenik, “Zein hizkuntza doakio hobeto?” ataleko sei aldagaiak, jaso diren urteetan, DBH2ko ikasleentzat jaso dira soilik, eta xehetasun hori “[DBH2 soilik]” zehaztapenarekin adierazi da taulan.

41. TAULA: USTIAKETARAKO JASOTAKO EDIZIO BAKARREKO, BIKO EDO HIRUKO DATUAK, ZEIN EDIZIOKOA ETA UNIBERTSOA EDO LAGINA DEN.
LH4. MAILAKO ETA DBH2. MAILAKO IKASLEAK, EAE, 2011-15

ALDAGAI A	2011	2013	2015	2017
1 Irakasteredua	✓	✓	✓	✓
2 Ikasmila	✓	✓	✓	✓
3 Ikastetxearen Arrue kodea	✓	✓	✓	✓
4 Ikaslearen Arrue kodea	✓	✓	✓	✓
5 Ikaslearen jaiotza urtea	✓	✓	✓	✓
6 Ikaslearen jaiotza hilabetea	✓	✓	✓	✓
7 Ikaslearen jaiotza eguna	✓	✓	✓	✓
8 Ikastetxearen titularitatea	✓	✓	✓	✓
9 Zein udalerritan bizi zara?	✗	✗	✓	✓
10 Ikaslearen ISEK maila	✓	✓	✓	✓
11 Ikastetxearen ISEK maila	✓	✓	✓	✓
12 Sexua	✓	✓	✓	✓
13 Non jaio zen zure aita?	✓	✓	✓	✓
14 Non jaio zen zure ama?	✓	✓	✓	✓
15 Non jaio zinen zu?	✓	✓	✓	✓
16 Zein hizkuntzatan hitz egiten duzu zure aitarekin? ⁴	✓	✓	✓	✓
17 Zein hizkuntzatan hitz egiten duzu zure amarekin?	✓	✓	✓	✓
18 Zein hizkuntzatan hitz egiten duzu neba-arrebekin?	✓	✓	✓	✓
19 Zein hizkuntzatan hitz egiten dute zure gurasoek beraien artean?	✓	✓	✓	✓
20 Etxekoek, denek, batera zaudetenean (jatorduetan, telebistan...) zein hizkuntzatan hitz egiten duzue?	✓	✓	✓	✓
21 Egiten duzu eskolaz kanpoko jardueraren bat ingelesez?	✗	✗	✓	✓
22 Eskolaz kanpoko jardueraren bat ingelesez egitekotan, zenbat ordu astero?	✗	✗	✓	✓
23 Egiten duzu eskolaz kanpoko jardueraren bat gaztelaniaz?	✗	✗	✗	✓ [lagina]
24 Eskolaz kanpoko jardueraren bat gaztelaniaz egitekotan, zenbat ordu astero?	✗	✗	✗	✓ [lagina]
25 Egiten duzu eskolaz kanpoko jardueraren bat euskaraz?	✗	✗	✗	✓ [lagina]

⁴ 2011, 2013 eta 2015ean aldagai honen informazioa jasotzeko baliaututako eskala aldatu egin da 2017an, eta ondorioz, datuak ezin dira zuzenean alderatu aurreko hiru urteetakoekin. Gauza bera gertatzen da familia esparruko beste hizkuntza-erabilera hauekin ere: “amarekin” (taulan, 17), “neba-arrebekin” (18), “gurasoek beraien artean” (19)

ALDAGAIA	2011	2013	2015	2017
26 Eskolaz kanpoko jardueraren bat euskaraz egitekotan, zenbat ordu astero?	✗	✗	✗	✓ [lagina]
27 Zein hizkuntzatan hitz egiten duzu zure gelako lagunekin jolaslekuan?	✓	✓	✓	✓
28 Zein hizkuntzatan hitz egiten duzu eskolako ikaskideekin gela barruan?	✓	✓	✓	✓
29 Zein hizkuntzatan hitz egiten duzu Klase partikularretan?	✓	✗	✓	✗
30 Zein hizkuntzatan hitz egiten duzu eskolaz kanpoko ekintzetan?	✓	✓	✓	✗
31 Zein hizkuntzatan hitz egiten duzu Udaleku edo kanpamentuetan?	✓	✗	✓	✗
32 Adieraz ezazu normalean zein hizkuntzatan hitz egiten diezun ZUK irakasleei gelan	✓	✓	✓	✓
33 Adieraz ezazu normalean zein hizkuntzatan hitz egiten diezun ZUK irakasleei gelatik kanpo.	✓	✓	✓	✓
34 Adieraz ezazu normalean zein hizkuntzatan hitz egiten duten zure irakasleak beraien artean.	✓	✓	✓	✓
35 Hiru urte bete arte, zein izan zen etxean erabili zenuen hizkuntza?	✓	✗	✓	✓
36 Gustuko al duzu euskara?	✓	✓	✓ [lagina]	✗
37 Gustuko al duzu gaztelania?	✓	✓	✓ [lagina]	✗
38 Gustuko al duzu ingelesa?	✓	✓	✓ [lagina]	✗
39 Zer iruditzen zaizu euskara?	✓	✓	✓ [lagina]	✗
40 Zer iruditzen zaizu gaztelania?	✓	✓	✓ [lagina]	✗
41 Zer iruditzen zaizu ingelesa?	✓	✓	✓ [lagina]	✗
42 Zer iruditzen zaizu matematika?	✗	✗	✓ [lagina]	✗
43 Zer iruditzen zaizu ingurumena?	✗	✓	✓ [lagina]	✗
44 Adierazi zein hizkuntza erabiltzen duzu holako egoeratan: A. Gehien bisitatzen duzun web orrian	✓	✗	✓ [lagina]	✗
45 Adierazi zein hizkuntza erabiltzen duzu holako egoeratan: B. Gehien ikusten duzun telebista saioan	✓	✗	✓ [lagina]	✗
46 Adierazi zein hizkuntza erabiltzen duzu holako egoeratan: C. Gehien entzuten duzun musika taldea edo abeslaria	✓	✗	✓ [lagina]	✗
47 Adierazi zein hizkuntza erabiltzen duzu holako egoeratan: D. Gehien entzuten duzun irratsaioan	✓	✗	✓ [lagina]	✗
48 Adierazi zein hizkuntza erabiltzen duzu holako egoeratan: E. Zineman ikusi duzun azken filmean	✓	✗	✓ [lagina]	✗
49 Adierazi zein hizkuntza erabiltzen duzu holako egoeratan: F. Zure lagunekin txateatu duzun azken aldian	✓	✗	✓ [lagina]	✗
50 Zure ustez, zein hizkuntza doakie hobeto ondoko egoera, toki edo pertsona hauetara? Familia	✓ [DBH2 soilik]	✗	✓ [lagina] [DBH2 soilik]	✗
51 Zure ustez, zein hizkuntza doakie hobeto ondoko egoera, toki edo pertsona hauetara? Lagunak	✓ [DBH2 soilik]	✗	✓ [lagina] [DBH2 soilik]	✗
52 Zure ustez, zein hizkuntza doakie hobeto ondoko egoera, toki edo pertsona hauetara? Formazioa	✓ [DBH2 soilik]	✗	✓ [lagina] [DBH2 soilik]	✗
53 Zure ustez, zein hizkuntza doakie hobeto ondoko egoera, toki edo pertsona hauetara? Hizlaria	✓ [DBH2 soilik]	✗	✓ [lagina] [DBH2 soilik]	✗
54 Zure ustez, zein hizkuntza doakie hobeto ondoko egoera, toki edo pertsona hauetara? Fabrika	✓ [DBH2 soilik]	✗	✓ [lagina] [DBH2 soilik]	✗

ALDAGAIA		2011	2013	2015	2017
55	Zure ustez, zein hizkuntza doakie hobeto ondoko egoera, toki edo pertsona hauetara? IKT	✓ [DBH2 soilik]	✗	✓ [lagina] [DBH2 soilik]	✗
56	Euskaldun proportzioa ikastetxearen udalerrian (%)	✓	✓	✓	✓
57	Ia euskaldun proportzioa ikastetxearen udalerrian (%)	✓	✓	✓	✓
58	Erdaldun proportzioa ikastetxearen udalerrian (%)	✓	✓	✓	✓
59	Euskarazko hizkuntza-konpetentzia (Sailkatua)	✓	✓	✓	✓
60	Gaztelaniazko hizkuntza-konpetentzia (Sailkatua)	✓	✓	✓	✓
61	Ingelesezko hizkuntza-konpetentzia (Sailkatua)	✓	✓	✓	✓
62	Euskarazko hizkuntza-konpetentzia (Pertzentiletan)	✓	✓	✓	✓
63	Gaztelaniazko hizkuntza-konpetentzia (Pertzentiletan)	✓	✓	✓	✓
64	Ingelesezko hizkuntza-konpetentzia (Pertzentiletan)	✓	✓	✓	✓

5.4.- ERABILERA-TASA ESLEITUAK

Inkestak emandako erantzunen ugaritasuna laburtzeko asmoz, eta hizkuntza-erabilerari buruzko hainbat galderari emandako erantzunetan oinarrituta, euskararen erabilera-tasa esleituak kalkulatu ditugu, honako aldagai hauetan:

- Ikasleen erabilera ikaskideekin gela barruan.
- Ikasleen erabilera gelako lagunekin jolaslekuan.
- Ikasleen erabilera irakasleekin gela barruan.
- Ikasleen erabilera irakasleekin gelatik kanpo.
- Irakasleen erabilera euren artean.
- Ikasleen eskolako erabilera orokorra.
- Ikasleen erabilera klase partikularretan. (2011ean eta 2015ean soilik)
- Ikasleen erabilera udaleku eta kanpamentuetan. (2011ean eta 2015ean soilik)
- Ikasleen erabilera eskolaz kanpoko ekintzetan. (2011ean, 2013an eta 2015ean)
- Etxekoen erabilera denak batera daudenean (jatorduetan, telebistan...).

Zehazki, aldagai horietako bakoitzean, ikasleek emandako sei erantzun posibleak hartu eta honako erabilera-balio hau eman diogu erantzun bakoitzari:

- Beti euskaraz = %100 euskaraz
- Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago = %75 euskaraz
- Euskaraz gaztelaniaz beste = %50 euskaraz
- Euskaraz gaztelaniaz baino gutxiago = %25 euskaraz
- Beti gaztelaniaz = %0 euskaraz
- Beste hizkuntza batean = %0 euskaraz

Balio horietan oinarrituta, eta ikasle guztiak kontuan hartuta, euskararen erabilera-tasa zenbatekoa litzatekeen kalkulatu dugu. Adibide gisa, hona hemen “Zein hizkuntzatan hitz egiten duzu zure gelako lagunekin jolaslekuan?” galderari 2015ean LH4ko ikasleek emandako erantzunak eta horietan oinarrituta nola kalkulatu genuen erabilera-tasa esleitua (bistan da, gainerako urteetako datuei dagozkien tasak ere modu berean kalkulatu dira).

42. TAULA: TASA ESLEITUA KALKULATZEKO ADIBIDEA. (%)

	LH4 2015	Erabilera esleituaren tasaren kalkulua	
	A	B	A * B / 100
Beti euskaraz	20,8	100	20,8
Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago	13,3	75	9,9
Bietan berdin	10,7	50	5,3
Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago	19,2	25	4,8
Beti gaztelaniaz	35,7	0	0,0
Beste hizkuntzan batean	0,3	0	0,0
Guztira	100,0		
Oinarria (n)	19.773		
Erabilera-tasa esleitua (%)			40,9

Erabilera-tasa esleituak zera esan nahiko luke: inkestan jasotako erantzunak errealitatearen isla zuzen-zuzena izango balira (unibertsoan alboratzerik ez balego), zenbat euskara entzungo litzatekeen, ehunekoetan adierazita. Adibidearen kasuan, kopuru horrek zera adieraziko digu: inkestako erantzunen arabera, %40,9koa da euskararen erabilera LH4ko haurren artean EAEko ikastegietako jolasleketuetan.

5.5.- SORTUTAKO ALDAGAI TRINKOAK ETA BEREN SORRERA


Aldagai batzuk aldagai ezberdinen informazioa konbinatuz sortu dira, emaitza gisa aldagai trinkoak berriak sortuz. 2011-2017 lan honetan 2 aldagai trinko (soilik)⁵ sortu dira 7 aldagai ezberdinek eskainitako informaziotik abiatuta. Zehazki, hauek dira sorturiko aldagai trinkoak (parentesi artean zenbat aldagaiei konbinaketa den):

1. Ikasleen eskolako erabilera orokorra [tr] (4)
2. Ikasleen jatorria [tr] (3)

Ikasleen eskolako erabilera orokorra [tr]. Ikasleen eskolako euskararen erabilera orokorra kalkulatzeko, gaiari buruz inkestan jasotako lau galderaren emaitzak hartu dira kontuan (honako irizpide hauek 2011ko Arrue ikerketan finkatu ziren⁶, eta hemen ere aplikatuko ditugu):

- Ikaskideekin gelan
- Ikaskideekin jolaslekuan
- Irakasleekin gela barruan
- Irakasleekin gelatik kanpo

Lau erabilera horiek konbinatu dira *Ikasleen eskolako erabilera orokorra* aldagai trinkoa osatzeko, baina ez zaie lau erabilerei pisu bera eman aldagai trinkoaren barnean. Irudi honetan adierazten da zer-nolako pisua eman zaion lau erabilera horietako bakoitzari:



⁵ Arrue 2011-2015 emaitzen analisisian, era honetako aldagai gehiago baliatu genituen (ikus *Arrue Ikerketa. EAEko Ikasleen Euskararen Erabilera Eskola-giroan, 2011-2015. Emaitza Nagusien Txosten Teknikoa*, 15. orr), baina 2017an hainbat aldagairen informazioa aurreko urteetan baino mugatuagoa zenez, bi baino ez dira izan.

